



OGP Ekintza Plana
Euskadi 2018-2020

OGP Ekintza Plana

Euskadi 2018-2020

Sarrera

1. Gobernu Irekia Euskadin – eraikitzen jarraitzeko oinarri den errealitatea	3
2. Erakunde arteko ekintza-plana: balio diferentziala	5

Plana egiteko prozesua

1. Antolaketa-eredua	5
2. Plana egiteko prozesua: une gogoangarri nagusiak	6
3. Parte-hartzerako eta herritarrekiko elkarrekintzarako plataforma	9

OGP Euskadiren konpromisoak

1. KONPROMISOA: KONTUAK EMATEA agintaldiko planen bidez	11
2. KONPROMISOA: OPEN DATA EUSKADI ETA LINKED OPEN DATA	13
3. KONPROMISOA: herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin	16
4. KONPROMISOA: OPEN ESKOLA (Herritarrentzat irekitako eskola)	19
5. KONPROMISOA: INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA	21

Planaren zabalkundea: bi urte hauetan nola egingo dugun lan

Konpromisoen arabeko taldeak, lidergoa, balioak.	24
Infografia laburpena	30

Eranskinak

1. Abiapuntu-diagnostikoa: Euskadiko Gobernu Irekiaren arloko indargune eta erronken gaineko kontakizun partekatua	31
2. Euskal Erakundeek Gobernu Irekian egindako ekimen nabarmenak	48
3. Foro Erregularrean herritar kide izaera taxutzeko prozesua	51
4. Euskadiko Foro Erregularraren gobernantza-eredua	60

HITZAURREA

1. Gobernu Irekia Euskadin, eraikitzen jarraitzeko oinarri den errealitatea

Lurralde-mugikortasuna egunerokoaren parte da Euskal Autonomia Erkidegoko edozein herritarrentzat: batek Gasteizen lan egin dezake, Bilbon bizi, eta Donostiara joan familiari bisita egitera. Elkarrengandik hurbil bizi gara. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren bizitza eta parte-hartze politikoa eskumen- edo erakunde-mugez ulertzen ez duten espazioetan eta uneetan gertatzen dira. Hala ere, eskumen oso deszentralizatuak eta kasu batzuetan partekatutako eskumenak dauzkaten 3 erakunde-maila dauzkagu (Eusko Jurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalak). Errealitate hori gogoan hartuta, erakunde arteko lankidetzan eta herritarren parte-hartzean oinarritutako gobernu irekiko eredua bat ezartzea komenigarria zaigu.

Euskadin jada gobernu irekiaren ildoan ari gara lanean, baina lurralde irekiagoa izatea dugu helburu. Gure era-

kundeek gobernu irekiko planak garatu dituzte dagoeneko, eta horri esker lortu da:

- **gardentasuna areagotzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun-atariak osasuntsu daude. Nazioarteko Gardentasuna bezalako erreferentziako erakundeek ebaluatu dituzte, eta emaitza bikainak izan ditugu, gardentasunaren ranking-etan lehenengo tokiak lortu baititugu¹. Open Data Euskadi atariak datu irekien 4.126 multzo ditu, eta Europako datu irekien lehenengo atari ez britainiarra izan zen, 2010ean sortu zenean. Euskal erakunde guztiok gobernu-programen eta gure aurrekontuen jarraipena egiteko aplikazioak dauzkagu, baita politika publikoak ebaluatzeko sistematik ere (gobernu-ekintza bideratzeko eta gobernu irekiko estrategiak elikatzeko informazio kuantitatibo eta kualitatibo esanguratsua daukaten behatokiak). Baina irisgarritasunean aurrera egin behar dugu, herritarrek egiten dituzten informazio-eskariak identifikatu, eskari horiek betetzea herritarrek bizitza publikoan parte hartzeko baliagarria izango delakoan, eta datuak ireki, zerbitzu publikoak hobetzeko eta balio publiko

partekatua sortzeko lagungarria izango delakoan.

- **aurrera egitea herritarren parte-hartzean eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan,** eta alde horretatik ekimen eta politika publikoei buruz eztabaida eta proposamenak sortzen laguntzea, parte-hartzea arautzeko arauen eta parte-hartze prozesuen deialdi anitzen bidez. Hala ere, kalitate demokratikoan aurrera egiteko, arlo publikoa kudeatzen duten pertsonen eta herritarren ikaskuntza eta berrikuntza eskatzen zaizkie; izan ere, beharizan eta arazo sozialak gero eta konplexuagoak dira, eta lankidetzako konponbide itundu eta konprometituak behar dira. Gugandik hain hurbil ez daudela sentitzen duten eta normalean parte hartzen ez duten pertsonen parte harraraztea, parte-hartze formala eta informala elkarbizitzen dauden eta elkarren osagarri diren eredu misto batean aurrera egitea, balio publikoa sortzeko kanal eta tresna efektiboak garatzea, lankidetzarako, baterako sorkuntzarako, negoziatorako eta akordio-rako trebetasunak nagusi izango diren eta inhibizioa eta norgehiagoka baztertuko diren inguruneak formal-

¹ Maila instituzional guztiak 100etik 80 punturen gainetik daude, eta haietako batzuek 100 puntu ere lortu dituzte

izatzea... erronkak dira, eta horiei ekin nahi diete gure erakundeek.

- **euskal administrazioen barneko eta kanpoko prozedurak digitalizatzea;** hala, herritar guztiak jada euskal administrazioekin harremanetan jar daitezke Internet bidez, zuzenean edo herritarrei arreta emateko langileen bitartez, eta horri esker hurbilagoak, arinagoak eta gardenagoak gara. Dena dela, interesgarria litzateke aurrera egitea zerbitzu integratu eta erakunde arteko batean, sarrerako ate hurbil eta zabala izan dadin herritar guztientzat.
- **ekintza publikoa nahiz erakundeen eta beren arduradun publikoen sinesgarritasuna errealizatzeko lagungarria den eredu baterantz aurrera egitea.** Erakunde-integritateko mekanismo eta tresnak aintzat hartu ditugu. Mekanismo eta tresna horiek kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen dute eta kontrol eta bermeen sistema bat barnean hartzen dute; kontrol eta berme horiei esker, berriz, interes orokorra nagusi da (kargu publikoaren jokabiderako arauak, kode etikoak, etika publikoa kontrolatzeko organoak, barneko nahiz kanpoko eragileek osatuak...). Baina etengabe eraikitzen ari den prozesu batean sistema osoago eta bateratuagoak garatu nahi ditugu... herritarrentzako bermerako eta arriskuen prebentziarako mekanismoen bidez. Prozesu horretan gehiago eskatzen digun ekintza oro aberasgarri izango da.

Diagnostiko partekatuaren laburpen-diagrama

INDARGUNEAK		ERRONKAK
Atariak sendotzea Lidergoa Organoak	GARDENTASUNA	Irigarritasuna Berrerabilera Koordinazioa
Kode etikoak Integritate-sistemak	INTEGRITATEA	Alerta-sistemak garatzea
5000 dataset Smart cities	OPEN DATA	Baliozko zerbitzuak sortzea Linked Open Datarako iraganbidea
Administrazioa digitalizatzea Smart cities Erkidego digitala	KULTURA DIGITALA	Irigarritasunean aurrerapausoak egitea Elkarreragingarritasuna
Programaren jarraipena Aurrekontu irigarriak Zerbitzuen gutunak	KONTU-EMATEA	Automatizazioa Ebaluazioaren kultura
Eskarmentua kalitatezko herri gisa Aurrerabide (Administrazioari egokitzea)	KUDEAKETA AURRERATUA	Jardunbide egokiak orokortzea
Gobernantza esperimental berria Online plataformak Parte-hartzea sustatzeko egitura politiko-administratiboak sendotzea. Liburu Zuria (inplementatzea)	PARTE-HARTZEA	Kultur aldaketa Esperimentazioa eta berrikuntza Organoak arrazionalizatzea
Herritarrei arreta emateko eredu bateratua	ARRETA-ZERBITZUAK	Integrazioa eta koordinazioa

2. Erakunde arteko ekintza-plana: balio diferentziala

Eta lurralde irekia izateko, gobernu irekiko eredu partekatu taxutu behar dugu; eredu horretan, herritarrek eza-gutzeko, parte hartzeko eta balio publikoa sortzen lankidetzan aritzeko dauzkaten aukerak berberak izango dira Euskadiko edozein lekutan, dena delako eskumena kudeatzea edozein erakunde-mailari dagokiola ere.

Helburu hori konplexua da, eta erakundeen lidergo sendoa eskatzen du, bai eta lankidetzako ikaskuntza eta ibilbide luzeko prozesua ere. Hain zuzen ere, ibilbide hori Lehendakariak bidalitako baterako hautagaitzarekin hasi zen, eta 2018-2020 epealdiko ekintza-plan hau batera sortzearekin aurrera jarraitu du; ekintza-plana prestatzea erakunde arteko lehenengo apustua izan da, eta apustu hori apurka gauzatzeko plana inplementatu eta ebaluatuko da, eta geroago planifikatuko da.

PLANA PRESTATZEKO PROZESUA

1. Antolaketa-eredua

OGP Euskadiren **Talde sustatzailea** Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek, 3 hiriburu eta udalek eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziak osatzen dute. Talde sustatzaile horrek, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren orientabideei jarraituz, 2018-2020 Ekintza Plana prestatzeko eta inplementatzeko antolatzea erabaki zuen, eta horretarako, 4 lankidetzatalde hauek hartu zituen ardatz:

- **Talde sustatzaileak**, OGP Euskadiren bultzatzaileak zehaztu behar ditu zabaltzeko eta komunikatzeko plana, antolaketa-eredua, ekintza-plana prestatzeko prozesua, ekintza-plana inplementatzeko bitartekoak, emaitzen autoebaluazioa...
- **Foro erregularrak**, eztabaidarako eta proposamenerako organoa den aldetik, planaren inplementazioa monitorizatzen du eta autoebaluazioari buruz eztabaidatzen du eta zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu². Foro erregularrak **idazkaritza**

tekniko bat dauka. Honako hauek osatuko dute: talde sustatzaileak OGPrean aurrean izendatzen duen erakundeen teknikari arduradunak eta Innobasque proiektuaren arduradunak -hautagaitza sustatzen duen herritarren kidea-. Bi pertsona horiek bitartekari gisa jarduten dute Foru Erregularreko kideekin, baina horrez gain lan-saioetako idazkariak eta lan teknikoaren eta dokumentuen kudeaketaren koordinatzaileak ere izango dira.

- **Foro irekia**, kontsultarako, kontrasterako eta proposamenerako organo birtual eta presentziala, eztabaida-ekitaldietara gonbidatzen dutena eta planaren prestatzeko, jarraipen eta ebaluaziorako deialdia jasotzen duena, beren-beregi sortutako OGP Euskadi [web](#) plataformaren nahiz harremanetarako beste kanal batzuen bitartez, kontsulta ahalik eta gehien zabaltzeko
- **Konpromisoen arabeko taldeak**, konpromiso bakoitza inplementatzeko sortutako lantaldeak, euren jardueraren kontu ematen dute eta, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez, planaren jomugak garatzeko eta hedatzeko bidea ematen dute.

² Era berean, Foro Erregularra arduratzen da gobernantza-eredua zehazteaz, modu parekidean euskal erakundearen eta herritarren artean (antolatuta egon zein ez), presidente biren, eta herritarrei aukera ematen die beren hautaketa prozesua antolatzeko.

Plana egiteko prozesua: jomuga nagusiak

1. JOMUGA - Foro Erregularra eratzeko prozesua

Hautagaitza sustatu zuen 7 euskal administrazioei Eudel-Euskal Udalen Elkartea batu zitzaenez, Foro Erregularra herritar antolatuen zein antolatu gabeen arteko beste 8 kiderekin eratu behar zen. Horien artean In-

nobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia inplikaturago, talde sustatzaileko kide izan baitzen. Foro Erregularreko beste 7 kideak osatzeko, hainbat fase zeukan autohautaketako prozesu bat sustatu zen. Fase horiek honako diagrama honetan laburbiltzen dira:



Talde sustatzaileak **90 gonbidapen baino gehiago igorri zizkien hainbat erakunde eta pertsonari, Foro Erregularrean parte hartzeko**, kontuan hartuta aniztasun irizpideak (adina, generoa, migrazioa, hiri eremua-landa eremua, herritarrak -antolatuak, antolatu gabeak, adituak, auzotasuna-, publikoa-pribatua) eta lurraldetasun irizpideak, eta proposamen gisa ireki zen Irekian, herritarren parte-hartzerako Eusko Jaurlaritzaren [web](#) orrian, OGP Euskadi web orria artean erakitzten ari zelako.

36 erakunde eta pertsonak adierazi zuten interesa, zein ikuspegi eta sentsibiltate ordezkatu nahi zuten identifikatuta. Pertsona horiek geroago maiatzaren 17an Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren egoitzan egindako bilera batean parte hartu zuten. Bilera hartan, talde sustatzaileak OGP Euskadi ekimenaren berri eman zuen, eta pertsonak eta herritarren erakundeek euren autohautaketa-prozesua ezarri ahal izan zuten, Foro Erregularrean euren ordezkaritza eratzeko.

Prozesu horretan autohautagaitzak aurkeztu ziren, Innobasque-Berrikuntzaren Agentziak proposamen tekniko bat egin zuen, eta hasieratik interesa agertu zuten pertsona guztiek berretsi egin zuten. Autohautaketako prozesu zehaztua, laburpen moduan bada ere, III. Eranskinean jasotzen da.

2. JOMUGA – Foro Erregularra eratzea eta diagnostiko partekatua

Maiatzaren 29an **Foro Erregularra eratu zen**, bere Gobernantza Eredua onartu zen, eta Euskadin Gobernu Irekiaren arloko indargune eta erronkei buruzko abiapun-

tu-diagnostikoa eztabaidatu zen. **Foru Erregularraren ekarpenen ostean, diagnostikoko dokumentua herri-tarren parte hartzerako ireki zen**, erraz irakurtzeko formatu batean eta formatu osoan, ekarpenak paragrafoz paragrafo egiteko aukerarekin, [Irekia](#) web orrian. Informazio hori dokumentu honen I. eranskinean jasota dago.

Foro Erregularra eratzea

ERAKUNDEA	TITULARRA	ORDEZKOA	LEHENDAKARITZA
Eusko Jaurilaritza	Luis Petrikorena - Gobernu Irekiko zuzendaria	Javier Bikandi - Herriarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria	Lehendakarikidea
Arabako Foru Aldundia	Nekane Zeberio - Ahaldu Nagusiaren Kabineteko zuzendaria	César Rodríguez - Gardentasun eta Partaidetzako teknikaria	
Bizkaiko Foru Aldundia	Maitane Leizaola - Behatokiko zuzendari nagusia	Nerea Martiartu - Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia	
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joseba Muxika - Herriarren partaidetzako zuzendaria	Goizeder Manotas - Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendaria	
Bilboko Udala	Gotzone Zaldunbide - Herriarrentzako arreta, Partaidetza eta Barrutiak Arloko zinegotzi eskuordetua	Amagoia Ibarondo - Kalitate eta Ebaluazio Kabineteko zuzendaria	
Donostiako Udala	Edorta Azpiazu - Lehendakarietako zuzendaria	Mike Esnal - Lehendakarietako Zuzendaritzari Laguntzeko Unitateko burua	
Gasteizko Udala	Vale Tena - Alkatetzako aholkularia Isabel Martinez. Partaidetzako zinegotzi ordezkaria (uztailaren 20tik aurrera)	Blanca Guinea - Alkatetzako zuzendari nagusia	
Eudel	Roberto Cañon - Eudeleko antolaketako burua		
Innobasque	Gotzon Bernaola. - Berrikuntza Publikoko zuzendaria	Goizalde Atxutegi - Proiektuen arduraduna	
Aditua	Alberto Ortiz de Zárate	Antxon Gallego	
Asociación Mestiza	Ana Molina		
Osoigo	Eneko Agirre		
Emakumeen Kontseilua	Arantza Otaola		Lehendakarikidea
Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	Maialen Olabe	Zuban Zubiria	
Sareen Sarea	Mikel Barturen		
Gasteizko kontzejuak	Miren Fernández de Landa		

3. JOMUGA – Konpromisoak definitzeko prozesua eta OGPren webgunea ateratzea

Aldi berean, eta modu irekian, **konpromisoak batera eta sormenez lantzeko prozesua** hasi zen. Ekarpenak biltzeko fitxa Foro Erregularra osatzeko interesa zuten kide guztien artean banatu zen, baita [Irekian](#) eta OGP Euskadiren web orrian, OGP Euskadi 2018-2020 Planaren hedapen eta parte-hartzerako beren-beregi sortutako horretan ere. Orduan atera zen **OGP Euskadiren web orria, herritarren interakziorako eta parte-hartzeko plataforma gisa**.

Konpromisoak batera eta sormenez lantzeko prozesuaren emaitza gisa **konpromisoen 41 fitxa** bildu ziren, eta fitxa horiek aztertu ziren, honako irizpide hauek oinarri hartuta: OGPren irizpideei egokitzea (neurgarria izatea, esanguratsua izatea, eragina izatea); administrazioaren eta herritar antolatuen nahiz antolatu gabeen artean ados jarrita erabakitako lehentasun bati erantzutea; konpromisoaren buru izateko prest dagoen euskal administrazio bat egotea. Azterketa horretatik abiatuta 8 konpromiso nagusi identifikatu ziren.

2018ko ekainaren 14an Foro Erregularrean egindako bileran eztaba-ida egin zen, azterketa sakonagoa egin zen, eta **Foro Irekian 5 konpromiso proposatzea** erabaki zen, horien kontrastea egiteko eta ekarpenak azaltzeko:

- Kontuak ematea agintaldiko planen bidez
- Open data Euskadi eta Linked Open data
- Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin
- Open Eskola (herritarrentzat irekitako eskola)
- Integritatearen Euskal Sistema



4. JOMUGA – Foro Irekia konpromisoak definitzeko

Uztailaren 2rako, Foro Irekiaren bilera ireki baterako deialdia egin zen. Ekitaldia OGP Euskadi [web](#) orrian argitaratzeaz gain, gonbidapena bidali zitzairen 6.065 pertsonari. Ekitaldia OGP Euskadiren [web](#) orrian argitaratzeaz gain, gonbidapena 6.065 pertsonari bidali zitzairen. Intereza agertu zuten pertsonen, konpromisoei buruz zegoen informazio guztia bidali zitzairen, topaketa egin baino lehen. Bileran 101 pertsona egon ziren, eta **parte-hartzea eta sormena bultzatzen dituen dinamika** bat proposatu zen, konpromisoaren deskribapenarekin, iris-menarekin eta lortu beharreko produktuekin, jomugekin eta inplikatu beharreko eragileekin lotutako elementuak, txertatzeko, ñabartzeko, sendotzeko edo ezabatzeko. Ekarpen gordinen txostena eta ekarpenen laburpena parte-hartzaileei itzuli zitzaizkien, eta uztailaren 9an argitaratu ziren.

Plan honetan biltzen diren konpromisoak Foro Irekian egindako birdefinizio eta kontrastetik sortu ziren.

Halaber, uztailaren 2ko Foro Irekiak oihartzun handia izan zuen sare sozialetan; hala jartzen dute agerian twitterren lortutako eraginaren txosteneko datu hauek.

5. JOMUGA – 2018-2020 Ekintza-planaren zirriborroaren kontrastea Foro Erregularrean

OGP Euskadiren 2018-2020 Ekintza-planaren kontraste eta balidaziorako bilera uztailaren 12an egin zen Gasteizen, eta ekarpenetarako 10 eguneko beste epe ireki bat hasi zen.

6. JOMUGA – 2018-2020 Ekintza-planaren zirriborrorako ekarpenen azken fasea Foro Irekian

2018-2020 Ekintza-planaren zirriborrorako ekarpenetarako berriro ireki zen, modu irekian, uztailaren 13tik uztailaren 23ra arte, OGP Euskadiren [web](http://www.ogp.euskadi.eus/dokumentuak/-/dokumentazioa/ogp/kontsultara-irekitako-dokumentuak/) orrian. <http://www.ogp.euskadi.eus/dokumentuak/-/dokumentazioa/ogp/kontsultara-irekitako-dokumentuak/>

1. Jarduera eta eraginak Twitterren

Kontua: @Pegip_eus (2018/07/02)

JARDUERA

18 txio

*Egun hartan
@Pegip_eus kontutik
egin ziren argitalpenen
kopurua (bertxioak
zenbatu gabe)*

IRISMENA

ELKARREKINTZA

404 elkarrekintza guztira

101 BERTXIO
97 Atsegin dut
38 klik loturetan
168 Bestelako elkarrekintzak
% 3,2 Elkarrekintza tasa

*Uztailaren 2an @Pegip_eus-en
txioekin elkarreraginak egon
diren aldien kopurua*

BIDEO-ERREPRODUKZIOAK


542 bistaratze

3. Parte-hartzerako eta herritarrekiko elkarrekintzarako plataforma

OGP Euskadiren [web orriak](#) honako informazio hau biltzen du:

- Zer da OGP?
- Zer dakarkio Euskadiri Gobernu Irekiarako Nazioarteko Aliantzan sartzeak?
- Hasitako prozesu guztien eta horien jardueraren dokumentu guztiak³
- 2018-2020 Ekintza-planaren faseak, atazak eta dokumentazioak, plana prestatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko
- Agendako albisteak eta gertakariak
- Eta parte hartzeko bideak: **izena eman** nobedadeen berri izateko; **eztabaidatu**, beste parte-hartzaileen ekarpenak ikusiz; **ekarpena egin** zuzenean, parte-hartzerako irekitako dokumentuetan; eta **komentatu** edozein eduki, eta sare sozialen bitartez zabaldu

Web orrian diagramak eta ikus-entzunezko elementuak txertatu dira, eztabaidatu beharreko edukiak eta plana prestatzeko prozesua bera irisgarriago bihurtzeko helburuz.



³ Jardueren / prozesuen dokumentuak web orrian eskuragarri daude: antolakuntza eredua, hedapen eta komunikazio plana, lankidetzat-talde guztien deialdi eta aktak, Euskadin gobernu irekiaren arloan dauden indargune eta erronken diagnostikoaren bertsioak; Ekintza-planerako konpromisoen fitxak eta bertsioak eta abar.

OGP EUSKADIREN KONPROMISOAK

Plana prestatzeko lankidetzako prozesuaren ostean honako hauek dira **Euskadiko gobernu irekiko 2018 – 2020 ekintza-plana osatzen duten 5 konpromisoak**

- 1** Kontuak ematea agintaldiko planen bidez
- 2** Open data Euskadi eta Linked Open data
- 3** Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin
- 4** Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola
- 5** Integritatearen euskal sistema

Konpromiso horien inplementazioa euskal gizarteak eta euskal erakundeek aintzat hartuko dute modu partekatuan, OGP Euskadi sustatzen duten bi erakundek gutxienez batera izango dute bai buruzagitza bai zuzeneko esku-hartzea, eta horiek guztiak inplikatu dira prozesuan gauzak ikasten nahiz euren esperientzia ekartzen, bai eta partekatutako erronkei ekiteko azaleratzen den euskal eredia bultzatzeko konpromisoan ere.

KONPROMISOA	LIDERGOA	ZUZENeko EKARPENA
1. Kontuak ematea agintaldiko planen bidez	Eusko Jaurlaritza-Gobernu Irekiaren Zuzendaritza	Bizkaiko Foru Aldundia Gasteizko Udala Donostiako Udala Bilboko Udala
2. Open data Euskadi eta Linked Open data	Eusko Jaurlaritza-HHABHZ Bizkaiko Foru Aldundia	Donostiako Udala Bilboko Udala
3. Herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin	Eusko Jaurlaritza-HHABHZ Innobasque Gipuzkoako Foru Aldundia	Bilboko Udala
4. Open Eskola: herritarrentzat irekitako eskola	Gasteizko Udala Arabako Foru Aldundia	Bilboko Udala Innobasque
5. Integritatearen euskal sistema	Gipuzkoako Foru Aldundia	Arabako Foru Aldundia Donostiako Udala Bilboko Udala

1. KONPROMISOA: KONTUAK EMATEA agintaldiko planen bidez

1. Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, jomugak, emaitzak, epeak...)

Izenburua: Kontuak ematea agintaldiko planen bidez.

Deskribapena: Herritarrekin batera adostasunez eta lankidetzan prestatzea euskal erakundeentzat (autonomia-, foru- eta toki-mailakoak) agintaldiko konpromisoari buruzko informazioa argitaratzeko oinarritzko estandarra eta estandar aurreratua (zer, nola eta noiz; eta zer

printzipiori lotuta), erakundearen lurralde-mailaren eta —udalen kasuan— tamainaren arabera parametrizagarria, honako alderdi hauek jasoko dituen jarraipen-metodoaren bidez: jarraipen-txostenak, herritarrek erraz ulertzeko moduko jarraipen-adierazleen eta betetzeen bistartzeen inguruko dataseten argitalpena; eta partaidetza eta komunikazio-plana, auditoretza sozial gisa.

Konpromiso hori metatzailea da, eta, beraz, agintaldiko planaren inguruan, kontuak emateko baterako eredurako nahi diren ezaugarriak zehaztuko dira. Era berean, eskalagarria izango da (baliozkoa oraindik hasi ez denarentzat

ere), eta, horretarako, mailak ezarriko dira, OGPK berak egiten duen bezala: oinarritzko estandarrak eta estandar aurreratutak. Kontuak emateko ereduak ezarri gero, hausnartu egin beharko dugu antolakuntza-ereduari, egitura-ereduari, jarraipen-ereduari eta abarri buruz, erronka horiei erantzun dakien, eta, gainera, bi maila horiek bete daitezzen.

Irismena: Zeharkakoa. Euskal administrazio guztiak, lurralde maila eta dimentsio bakoitzera egokituta.

Helburu orokorra: Kontuak emateko praktika ezartzea, agintaldiko planen bidez, baita herritarren parte-hartzea ere haren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, gai publikoetan parte-hartze handiagoa duten herritarrak izateko.

Helburu operatiboak / emaitzak:

1. Agintaldiko planetan argitaratuko den informazioaren baterako egitura adostea, euskal administrazioaren mailetara egokituta, konpromisoen betetze mailaren, epean izandako desbideratzeen, gastuaren beteazpenaren eta ekintza bakoitzaren kalitate globalaren jarraipena egiteko aukera emango duena (emaitzak eta eraginak)
 - 2030 Agendaren helburuei lotua
 - emaitzen eta eraginen neurketarako adierazleei (gizartea, generoa, ingurumena...) lotua
 - erakunde-maila guztietan lehentasunari eta herritarren kezkari buruzko adostasuna duten gaien dekalogo bat txertatuta

2. Ekintza konprometituen aurrerapenaren online jarraipen xehaturako plataforma baten alderdi funtzionala definitzea (balizko berrerabileraren ikuspegitik), elementu grafiko interaktiboetan oinarrituta.
3. Politiken hartzaileak segmentatzea eta informazio-kanalak interesetara egokitzea, auditoretza sozialeko parte hartzeko prozesuak barne. Auditoretza sozial bat bermatzeko gakoak identifikatzea.
4. Gure administrazioetako kulturen proiektuen bilakaera herritarren iritziarekin eratzeko ohitura sartzea.

Eginkizunak/jomugak:

1. Lurralde-maila eta dimentsio bakoitzera egokitutako agintaldiko planek bete behar dituzten irizpide komunak adostea eta, horretarako, administrazio-maila guztiek parte hartzea eta herritarrek kontrastea egitea
2. Agintaldiko planak betetzeari buruzko jarraipen-mekanismoek bete beharreko baldintza komunak adostea, auditoretza sozial gisa
3. Balizko berrerabileraren ikuspuntutik, agintaldiko planaren plataforma alderdi funtzionalean definitzea
4. Agintaldiko planaren jarraipenean parte hartzeko/komunikatzeko gakoak identifikatzea (auditoretza sozialaren ereduak)
5. Emaitzak aldizka argitaratzeko eskema garatzea
6. Aldizkako komunikazio-produktuak diseinatzea (sei hilekoa / urtekoa / agintaldiaren amaierakoa)

7. Lagin pilotua ezartzea (udal-hauteskundearen ostean)
8. Pilotuen ebaluazioa egitea

Epeak:

- 1-6 ekintzak: 2018ko irailetik 2019ko maiatzera
7. ekintza: 2019ko maiatzetik aurrera
8. ekintza: 2020ko uztaila

2. Nor izango da buru eta zergatik

Eusko Jaurilaritza, Lehendakariitzako Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren bidez. Eusko Jaurilaritzak Gobernu Programaren jarraipen-eredua du garatuta eta hori izango da abiapuntua.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bizkaiko Behatokiaren bitartez, dagoeneko Plan Estrategikoari lotutako eredu bat baliatzen baitu kontuak emateko, jarraipenaren adierazleekin eta parte-hartze bidezko auditoretza sozialekin.

3. Inplikatu beharreko erakunde eta pertsonak

Zuzenean jardungo dutenak: Donostiako Udala, Gasteizko Udala eta Bilboko Udala.

Foru eta toki mailako gainerako administrazioek ere inplikatu beharko dute, lurralde maila horietara egokitze eta dimentsio txikiko toki mailakoak ere tartean sartzeko, premia guztiak jaso daitezzen; beraz, Eudelen lankidetzak ere beharrezkoa izango da.

Herritarrek parte hartuko dute, herritar antolatuen eta antolatu gabeen inplikazioaren bidez, eta, horrela, beren ikuspegia eta sentsibiltate desberdinak jasoko dira.

Parte hartzeko prozesuan, foro irekiaren bidez, konpromisoaren garapenean parte hartzea gonbidatuko diren erakunde eta pertsonak identifikatuko dira.

4. Konpromiso-mota

Bertikala. Agintaldiko planen kontuak emateko, kultura bat eta baterako metodo batzuk ezarri behar dira administrazioari hiru lurralde mailatarako, herritarrek erraz ulertzeko modukoak izateko eta beren parte-hartzea sustatzeko gai publikoetan.

5. Lantzen duen problematika

19/2013 Legeak, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoak, administrazio guztiak behartzen ditu helburu zehatzak ezartzen dituzten urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratzera, bai eta horiek betearazteko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta denbora ere, eta horien betetze maila eta emaitzak ere bai (neurketa eta balioespen-adierazleak) (6.2. artikulua).

2/2016 Legeak, Euskadiko Tokiko Erakundeak, publikitate aktiboko betebeharrak gisa ezartzen du gobernu-planaren, agintaldiko planaren edo jarduteko udal-planaren argitalpena, halakorik egonez gero, eta, aldiaren behin, haren betetze mailarena. (52.1.c) artikulua).

Hala ere, arau horrek ez du euskal herritar guztientzako baterako eredua ezartzen, ulergarria dena eta partekatutako balio publikoa sortzean aktibatzen bultzatuko duenik. Hori dela eta, araudia palanka gisa hartuta, agintaldiko planen kontuak emateko euskal eredua erakitzearen aldeko apustua egiten dugu, baterako irizpide eta auditoretza sozialeko printzipioekin.

6. Balorazioa: Ekar dezakeen eragina

Maila bat gora egitea ekarriko luke, euskal erakundearen lankidetzako gobernantzan.

Hedapenerako gakoak, Foro Irekian landu direnak

Kontuak emateko eredua herritarrekin zehaztu behar da (zer, nola eta non). Kontuak emateko prozesua plangintzarekin lotu behar da, eta herritarrek prozesu osoan zehar parte hartzen dutela bermatu.

Agintaldiko planaz harago joatea gutxienezkoa den arren, ez da aski. Pilotua izan daiteke (eredu komunean aukerak probatu egin behar baitira), beste batzuekin batera; horren adibide, kontuak ematean herritarren intereseko izan daitezkeen gaien dekalogoaren diseinua.

2030 agenda - zein da ekintza publikoak gizartean duen eragina? Kontuak ematean halako adierazleak sartu behar dira (ingurumenaren gaineko eragina, generoa eta abar).

Lankidetzak ezarri behar da bi alde nabarmen hauekin: haurrekin eta emakumeekin.

2. KONPROMISOA: OPEN DATA EUSKADI ETA LINKED OPEN DATA

1. Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, jomugak, emaitzak, epeak...)

Izenburua: Open data Euskadi eta Linked Open data

Deskribapena: Berrerabiltzaileek (unibertsitateko ikertzaileak barne) Euskadin eta herritarrek eskatutako datuen multzoak identifikatzea eta euskal administrazioek datu horiek normalizatu eta elkarrekin lotzea eta, horretarako, bistaratzeko eta erakunde arteko zerbitzu berriak garatzea.

Irismena: Zeharkakoa. Euskal administrazio guztiak, datu-multzoak emateko gaitasuna dutenak, eta, horretarako, Open Data Euskadin datuen federazio bidez barne hartzea.

Helburua da euskal administrazioek irekiak diren edo ireki daitezkeen datu publikoen multzo batzuk hautatzea herritarren eskarian oinarrituta, eta, hortik aurrera, bai datuak berak eta bai datuok Euskal Autonomia Erkidegoko datu publiko irekien atarietan formatu berrerabilgarrietan eskaintzeko modua normalizatzea.

Gero, euskal administrazioek datuen egitura eta formatuak normalizatu eta homogeneizatzeko dituzte, eta administrazio bakoitzak argitara emango ditu hautatutako datu multzoak formatu ireki jabegabeetan, alegia, Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako hirugarren mailan (<http://5stardata.info/es/>).

Azkenik, ahal izanez gero, multzoetako datuak EAEko administrazioen artean estekatuko dira eta linked open data moduan argitaratuko dira (Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako 5. maila). Halaber, urtean zerbitzu bat sortuko da estekatutako datuen informazioa bistaratuta.

Erronka konplexua da eta informazioa daukaten EAEko erakundeen eta berritze demokratikoarekin konprometituta dauden gobernu kanpoko erakundeen arteko elkarlana behar da, erakunde horiek herritarren eta onura komunaren defendatzaile baitihardute. Lankidetzan jardun behar da, sareak ehunduz eta jardunbide egokiak eta tresnak partekatuz.

Helburu orokorra: Euskal administrazioek sortzen dituzten eta herritarren interesekoak diren datu publiko irekien erabilera sustatzea da xede nagusia.

Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioko Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionalak egindako ONTSI 2016 azterlanaren arabera, datu irekien berrerabiltzaileek duten arazo nagusia da datuak homogeenak ez izatea (horrela adierazi dute inkesta egin zaien berrerabiltzaile guztietatik % 69k).

Konpromisoaren helburuaren bitartez berrerabiltzaileek datuetatik eratorri ohi diren produktuak sortzeko orduan daukaten oztopo nagusia ezabatu nahi da eta, horretarako, datu publiko normalizatuak argitaratu eta berre-

rabiltzeko aukera eredu adierazi eta, horretarako, herritarrentzat interesekoak diren zerbitzuak sortu.

Helburu operatiboak / emaitzak:

1. Euskal administrazioen artean datu irekiak normalizatzeko bidea irekitzea, Euskadin datu-multzo publiko irekien eta normalizatuaren kopurua apurka handitzeko oinarriak ezarriko dituenak.
2. Berrerabiltzaileen eta herritarren foku-taldearen eskari erantzutea, interes gehien eragiten duten datu-multzo ireki publikoak zein diren adieraztean.
3. Datu-multzo homogeenak eta elkarrengarriak eskaintzea, horietatik abiatuta zerbitzuak sortzeko aukera ematen dutenak.
4. Datu estekatuarekin erakunde arteko zerbitzuak sortzea.

Eginkizunak/jomugak:

1. Erakunde arteko lantalde bat abian jarrita, Eusko Jaurlaritzaren buruzagitzarekin batera prozesua gida dezan:
 - a) Barneko sentsibilizazioa administrazioan-irekiera
 - b) Datuak eskariaren, normalizazioaren eta argitalpenaren arabera hautatzeko estrategia, zerbitzuak diseinatzeko
2. Eskari gehien duten datu-multzoak hautatzea; eskakizun bakarra da euskal administrazio gehienek dituzten datuak izatea, eta alde horretatik, datuek aditza

eman ahal dutena alde aurretik baloratzea saihestu behar da.

- a) Herritarren partaidetza oinarrituta, administrazioak dituen datuak bilatzeko arrazoirik garrantzitsuenak zeintzuk diren jakin behar da
3. Administrazioen artean datuak normalizatu eta homogeneizatzea.
 4. Datu multzoak formatu berrerabilgarri irekietan argitaratzea (Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako 3. maila).
 5. Zenbait datu multzo argitaratzea datu estekatu gisa (linked data, edo Tim Berners-Leeren datu irekien 5 izarreko eskemako 5. maila), eta Open Data Euskadi atariko Linked Open Data azpiegituran kargatzea.
 6. Erakunde arteko zerbitzuak sortzea datu estekatuarekin.

Epeak:

- 1-3 ekintzak: 2018ko irailtik 2019ko irailera
4-5 ekintzak: 2019ko irailtik 2020ko abuztura

2. Nor izango da buru eta zergatik

Eusko Jaurlaritza, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bidez; izan ere, 2020rako gobernantza eta berrikuntza publikoko plan estrategikoan lehentasun gisa ezarri du ustiatzeko

ahalmen handia duten (osasuna, hezkuntza, industria...) eta aberastasuna sortzea sustatzen duten eta euskal herritarren artean iritzia taxutzen laguntzen duten datuen askapenean oinarritutako zerbitzu publiko berriak eskaintzea.

Eusko Jaurlaritza da beharrezko buruzagitza hori bere gain har dezakeen erakundea; izan ere, datu publikoak irekitzeko egoerarik aurreratuenen dago eta Open Data Euskadi du; bertan, pixkanaka, gainerako euskal administrazioen datuak federatzen doaz. Gainera, Linked Open Data plataforma ere badu, eta horrek aukera ematen du datuak estekatzeko, informazio eskuragarriagoa sortzeko.

Bizkaiko Foru Aldundia ere apustu sendoa egiten ari da open data arloan eta, beraz, konpromiso honen lidergoan ere parte hartuko du.

3. Inplikatu beharreko erakunde eta pertsonak

Zuzenean jardungo dutenak: Donostiako Udala eta Bilboko Udala.

3 foru-aldundiak, 3 hiriburu eta udalak eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarte inplikatu dira, erakunde publiko diren aldetik.

Informazioaren bitartekariak, unibertsitateak eta erakunde pribatu formalak eta informalak izango dira, datu

publikoen berrerabilera sustatzen eta herritar aktiboak bultzatzen dituztenak.

Parte hartzeko prozesuan, foro irekiaren bidez, konpromisoaren garapenean parte hartzea gonbidatuko diren erakunde eta pertsonak identifikatu dira.

4. Konpromiso-mota

Konpromiso bertikala. Berrerabiltzeko datu publikoak irekitzeko, baterako eredia prestatu behar da administrazioaren hiru lurralde mailetarako, informazioa estekatu ahal izateko.

5. Lantzen duen problematika

Aberastasuna sortzeko eta herritarren artean kudeaketa publikoaren gaineko kontzientziazio kritikoa sortzeko ahalmena duen informazio publikoa ez erabiltzea.

6. Balorazioa: Ekar dezakeen eragina

Honako eragin hauek aurreikusten dira:

- Eskarian ardaztutako datuak irekitzeko estrategia baterantz aurrera egitea.
- Berrerabilera kaltetzen duen datuen irekiera mailaketa gaitztea // edo bestela esanda: gizarte zibilak

datuak berrerabiltzeko, datu estekatuen irekiera bateratua gauzatzea.

- Datuak irekitzeko eta estekatzeko baterako estrategia ezarri eta adostu eta lehen zerbitzuak abian jarri ondoren, eredu gisako eragina eta eragin biderkatzailea izango du, eta horrek ekarriko du herritarrek zerbitzu berriak eskatzea.

Hedapenerako gakoak, Foro Irekian landu direnak

Prozesuan, lehen une garrantzitsua zera izan behar da: eredia zehaztu eta datuak irekitzearen kulturen lan gehiago egitea. Ondoren, lana normalizatu eta lehentasunak zehazteko foro egonkorrekin (publiko eta pribatua) aritu den lantaldea osatu behar da, Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean.

Pertsonek, administrazioen esku dagoen informazioa bilatzera doazenean, zein duten arrazoi baloratu behar da bereziki. segurtasuna? laguntza? negozioa? Herritarren parte-hartzea aztertu behar da, herritarren, enpresen, familien edo taldeen arrazoi nagusiak identifikatzeko.

Talde politikoak hausnarketan sartu behar dira – datuetan jaso-ta geratu behar da.

Datu-multzo osoak ikusi behar dira (positiboak eta negatiboak).

Nazioarteko adituak agente gisa sartu behar dira.

3. KONPROMISOA: herritarren parte-hartzearen ilab-a Euskadin

1. Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, jomugak, emaitzak, epeak...)

Izenburua: Herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntza publikoko laborategia sortzea (herritarren parte-hartzearen *ilab*-a Euskadin).

Deskribapena: Helburua da herritarren parte-hartzearen *ilab*-a sortzea Euskadin, honako hauetan oinarrituta:

- lankidetzaren publiko-pribatua: balio publikoa batera sortzeko herritarren parte-hartzearen gainean ikasteko espazioa izatea
- berrikuntzak esperimendatzeko herritarren parte-hartzean, eskala txikiako proiektu pilotuen sustapenaren eta horien testatzearen bidez
- enpatizatze, definitze, asmatze, ereduak ezartzeko eta testatzeko aukera ematen duten metodologia berritzaileak eta sortzaileak erabiltzea
- arriskua kudeatzea; horren bidez, administrazioek hobeto esperimendatzeko eta toleratzeko dute porrota, herritarren artean duen eragina gutxitzearen ondorioz
- berrikuntza publikoarekiko konpromisoa, gobernu onerako: integritatea, gardentasuna, kontuak ematea eta lankidetzaren eraikitzailea
- erakundearen arteko erreferentzia duen jarduketaren, jardunbide egokiak zabaltzeko

Irismena: Zeharkakoa. Euskal administrazio guztien parte-hartzearekin, beren interesen arabera.

Helburu orokorra: Euskadin euskal administrazio guztientzat eta egitura zibikoarentzat erreferentziazkoa den herritarren parte-hartzearen berrikuntza publikoa suspertzeko foro egonkorra eratzea, jardunbide egokiak orokortzeko.

Helburu operatiboak / emaitzak:

Euskadin parte-hartzeko *ilab*-aren bidez:

- ikusminak trukatu eta lankidetzaren jardungo dute eragile instituzional eta zibikoek, herritarrek parte hartzeko printzipio, eredu, kanal, metodologia eta jardunbideen inguruan
- herritarrek parte hartzeko eta lankidetzaren publiko-pribaturako kanal, metodo eta eredu berriak frogatzeko dira egiaztatutako esperimendazioaren bidez, erronkak ekartzen dituzten esparruetan, balioa sortu ahal izateko eta balio hori jardunbide egoki gisa orokortzeko
- parte-hartzerako tresna-kutxak garatzea, erabilera partekatua duten eta testatzeko kasuak aplikatu ahal zaizkien tresna-kutxak, alegia
- ahaleginak zehaztu eta koordinatzeko dira parte-hartzearen gaineko berrikuntza publikoan, eta proposamen publiko edo pribatuak bideratzeko dira
- murriztu egingo da erakunde-esparruan gobernamendu-eredu berriak esperimendatzeko arriskuak zaion beldurra

- gobernu onerako lankidetzaren publiko eta pribatuaren birtualtasunak eredu adieraziko dira

Eginkizunak/jomugak:

- 1) "Euskadiko herritarren parte-hartzearen ilab-a" herritarren parte-hartzea duen erakundearen arteko laborategia sortzea, foro informala gisa baina berrikuntzarekin eta jardunbide egokiak zabaltzearekin konpromisoa duen foro egonkor gisa
 - Kudeaketa-eredua zehaztu eta formalizatzea beharrezkoa da. Harreman-sistema, zeharkakotasuna eta dimentsio-aniztasuna kontuan hartuta, sektore-aniztasunaren aldean
 - Tokiko ikuspegia txertatu behar da, hau da, jendearen egunerokotasunean eragin
- 2) Munduan eta OGP bazkideetan herritarren partaidetza jardunbide berritzaileak (esperientzia, proiektuak, eragileak) mapatzea, eta gainera tokiko eremuan proiektuak eta eragileak identifikatzea eta aztertzea
 - Behatoki lotua – bilatzen ikastea vs mapatzea
- 3) Interesgarriak izan arren arriskua duten edo eztabaiatuak diren, herritarren intereseko arloetatik sortu diren edo herritarren erantzuna edo inplikazioa behar duten eta gidatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko bultzatzaile egokiak dituzten jardunbide berritzaileei buruz (zozketa bidezko kontsultak, parte-hartzearen aurrekontuak, parte hartzeko plataforma birtualak,

elkarlaneko zuzenbidea...) garatu beharreko pilotuak identifikatzea

- Proiektu horiei erantzuteko zein beharizan edo zailtasun dagoen identifikatzea
- Etorikizunerako deialdia egitea: zein pertsonarengana ez da hurbilduko?

4) 4 pilotu abiarazi behar dira; “zer” eta “nola” jorratzen lan egindako urte bakoitzeko bi. Konpromisoak identifikatzeko prozesuan, aztertu beharreko zenbait interes zehaztu dira:

- “Nola” jorratzean:
 - i. gazteen, immigranteen, nesken... (edozeinen?) parte hartzea aktibatzeak kanalak, hizkera inklusiboa
 - ii. zozketa bidezko kontsulta eraginkorra egiteko baldintzak
 - iii. parte hartzeko aurrekontuak prestatzeko prozesuetan balioa sortzeko baldintzak
- “Zer” jorratzean:
 - i. kontratu kontzienteei aplikatutako elkarlaneko zuzenbidearen filosofia esperimintatzea, etxebizitzaren alokairuen eremuan, hutsik dauden etxebizitzak alokatzeko alternatiba gisa.
 - ii. gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek parte hartzeko plataformak, eta, horretarako, gizarte-zerbitzuen mapari, prestazioen katalogoari eta beraiei dagozkien zerbitzuei buruzko informazioa identifikatzea, bai eta elkarrekintzako aukerak ere

Edonola ere, helburua da metodologiak testatzea, jardunbide egokiak ezagutu eta horien balioa agerraraztea... Beraz, lantaldeak gaiak eta esparruak adosteko tarteak izango du.

- 5) Emaizten eta eraginaren ebaluazio partaidetua
- 6) Zabaldu beharreko parte hartzeko metodologia, tresna edo eredu berriak modelizatzea eta, horretarako, gidak, eskuliburuak eta orientazioak prestatzea, tresna ezberdinak elementu erabakigarriak izan daitezkeen horiekin doituz: prozesuaren irismena, lortu nahi den eragina, herritarren itxaropenak, erabil daitezkeen denbora eta baliabideak eta abar.
- 7) Hedapena/ikusgarritasuna sustatu behar dira: beste leku batzuetara begiratu behar da, aintzatespena edo esker ona (sariak) emateko
- 8) Jardunbide egokiak instituzionalizatzea

Epeak:

- 1-3 ekintzak:
 - 2018ko irailetik 2019ko martxora
4. ekintza:
 - Lehenengo 2 pilotuak abiaraztea
 - 2019ko urtariletik abendura
 - Bigarren 2 pilotuak abiaraztea
 - 2019ko urtariletik ekainera
5. eta 6. ekintzak:
 - 2020ko urtariletik uztaileira

2. Nor izango da buru eta zergatik

Eusko Jaurlaritza, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bidez; Gipuzkoako Foru Aldundia, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren bitartez eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia, guztiak ere Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren sustatzaile.

- Proiektu pilotuetan parte hartzeko prest dauden administrazioekin elkarlanean
- *Ilab*-ean parte hartzeko prest dauden pertsonekin edo herritarren erakundeekin lankidetzan.

3. Inplikatu beharreko erakunde eta pertsonak

Zuzenean jardungo duena: Bilboko Udala.

3 foru-aldundiak, 3 hiriburu-udalak eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak inplikatu dira, erakunde publiko diren aldetik.

Euskadiko Elkarlan Zuzenbidearen Elkarteak.

Euskadiko hirugarren gizarte-sektoreko erakundeak.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

Eta dagoeneko Euskadin herritarren parte-hartzearen arloan lanean ari diren entitateak eta pertsonak, hala nola: Arantxa Mendiharat, Bherria, Cities Lab, Civersity, Coach&Play, ColaBoraBora, Conexiones Improbables, Emanhar, Globernance, Hirikilabs, Ibatuz, IIFAC-E, Ko-

munikatik, Korapilatzen, Maraka, OSGilagunak, Parte Hartuz, Sinergiak, Solasgune, Tipi, Ubiqa, Urbanbat, Wikitoki, Zerbikas Fundazioa.

4. Konpromiso-mota

Bertikala. Euskal administrazioek berritzeko lehentasunak identifikatuko dituzte eta interes handiena duten proiektu pilotuetan inplikatu dira; ondorioek eta ereduak guztientzat balio izango dute.

5. Lantzen duen problematika

Administrazio guztiok ari gara parte hartzeko prozesuak abiarazten. Hala ere, zenbait kasutan, erabiltzen diren kanal eta mekanismo tradizionalek beti ez dute interesa eragiten edo beti eragiten dute talde eta pertsona beretan. Helburua da ahalik eta jende gehienarengana heltzea eta balio publiko gehiago sortzea parte hartzeko prozesuetan, bai eta herritarrek aktibatzea ere kudeatzaile publikoen erabakian laguntzeko.

Herritarren parte hartzeari dagokionez, administrazioek sustatutako parte-hartze prozesuetan nekea eta eszeptizismoa agertzen hasi dira (prozesu parte-hartzaileen ugaritasuna, helburu ez oso argiak, eragiteko gaitasun mugatua, eredueta bikoizketak...), eta honek beharrezko egiten du gehien erabiltzen diren kanalak, metodoak eta tresnak birpentsatzea.

Bestalde, parte hartzeko zenbait modu daude, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zurian identifikatu bezala: *parte-hartze politikoa*, *politikak eta programak diseinatu eta ebaluatzeko* (herritarrek efikazia politikoa esku hartzen duten agenteak dira); *zerbitzu publikoak diseinatu eta ebaluatzeko parte-hartzea* (herritarrek zerbitzu publikoen erabiltzaileak dira); *lankidetzan oinarritutako parte-hartzea* (herritarrek balio publikoaren sortzaileak dira; lankidetzan jardun, batzeko). Helburua da hiru eremu publiko-pribatu horietan berritzaileak diren elkarlanean jardunbideak sustatzea (parte-hartze politikoa, zerbitzu publikoak hobetzeko parte-hartzea, lankidetzako parte-hartzea) eta, horretarako, hainbat sentsibiltate eta ikuspegi sartzeko ahalegina egitea.

6. Balorazioa: Ekar dezakeen eragina

Ekimen horren bidez, parte hartzeko eta herritarrek lankidetzan jarduteko jardunbideei heldu eta horiek zabaldu ahaliko dira; izan ere, esperimentatu, modelizatu eta adostu egin dira, dagoeneko, eragile instituzional eta zibikoekin.

Hedapenerako gakoak, Foro Irekian landu direnak

Probatzen den horren gaineko ezarpenari buruzko protokoloa ezarri behar da (ez dadila izan leku jakin batean egindako proba hutsa, jardunbide onak instituzionalizatzeko bidea baizik).

Espazio publiko eta pribatua izan behar da, hasieratik, ikasteko, jolasteko eta akatsak egiteko beta emango duena. Normalean ez dagoen horrengana iristeko ahalegina egin behar da

Ilab-en pilotuak interes-arloetan edo herritarren erantzuna behar den tokietan (hezkuntza, etxebizitza...) zehaztu behar dira

4. KONPROMISOA: OPEN ESKOLA (Herritarrentzat irekitako eskola)

Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, jomugak, emaitzak, epeak...)

Izenburua: Herritarrentzako eskola irekiaren eredu kontrastatua garatzea, Euskadiko topagune eta ikasgune gisa, gai publikoetan aktiboagoa den herritartasuna eta administrazio irekiago eta gardenagoa sustatzeko, parte-hartzearen kulturaren eta etengabeko hobekuntzarako erantzukidetzaren balio partekatuekin.

Deskribapena: Euskadin herritarrentzako eskola irekiaren eredu definitzea da helburua, lurralde-maila guzti-etan ezartzeko erreferentzia izango dena. Honako hauek izango ditu oinarri:

- lankidetzako publiko-pribatua: balio publikoa batera sortzeko lankidetzarako gaitasunen inguruan ikasteko espazioa izatea; bertan, herritarrak eta kudeaketa publikoko langile tekniko eta politikoak inplikatu dira
- lankidetzako, negoziatioko eta akordiorako trebetasunak ikasteko metodoak esperimentatzea
- ikaskuntza eta gai publikoetan parte hartzeko motibazioa, abiapuntutzat hartuta aplikazio praktikoa, “eginez ikasi”, eta esperientzia berritzaileen ezagutza. Euskadiko parte-hartzearen *ilab*-arekin lankidetzan, Open Eskolako herritarrek *ilab*-ean frogatuko diren proiektuetan / ekimenetan parte hartzeko aukera izango dute

- DELIBERAZIOAKO beharrezkoak diren gaitasun eta jarrerak
- herritarrak alde kritikoan aktibatzea balio publikoa sortzen lankidetzan aritu daitezen ahaldundutza
- berrikuntza publikoarekiko konpromisoa, gobernu onerako: integritatea, gardentasuna, kontuak ematea eta lankidetzaren eraikitzailea
- erakundearen arteko inplikazioa, jardunbide egokiak zabaltzeko

Irismena: Transbersala. Euskal administrazio guztien parte-hartzearekin, beren interesen arabera.

Helburu orokorra: Euskal gizartean parte hartzeko eta lankidetzako kultura sustatzea balio publikoaren sorreran eta, horretarako, lankidetzarako trebetasunetan gaitzea.

Helburu operatiboak / emaitzak:

Euskadirentzako Open Eskola eredu definitzea, edozein udalerrirentzat baliagarria izan dadin eta sareko jardunbide egokiaren ikaskuntza eta elkartrukeko bitarteko izan dadin. Eredu horrek honako xede hauek izango ditu:

- informazio publikoa herritarrekin partekatzea, ahalik eta modurik irisgarrienean eta ulergarrienean eta, horrela, administrazioen jardura hobeto ezagutu eta negoziatzearako eta interesen kontziliaziarako hobekuntza-proposamenak sortu ahal izateko. Horrela eratuko da, halaber, hiriaren / lurralde historikoaren / autonomia-erkidegoaren aukera, erronka eta proiektu

tuen inguruan hausnarketak eta eztabaidak egiteko espazio irekiak sustatzeko

- herritarren artean eta elkarlanerako joera duten eragile publikoaren artean konfiantzan oinarritutako jarrera eta portaerak eragitea; horrela, aldearen premia eta interesetan, komunikazio eraginkorrean, entzute aktiboan, gatazkaren prebentzioan edo gatazkaren konponbidean arakatu ahal da, konfrontaziorik gabe eta aldeentzako akordio gogobetegarriak bilatuz
- parte hartzeko zailtasunak dituzten kolektiboak gaitu eta motibatzea (adinekoak, hizkuntzarekin zailtasunak dituzten etorkinak, hezkuntza maila baxuko pertsonak...)

Horretarako, honako hauek modelizatu beharko dira:

- herritarren informazio- eta komunikazio-sistemak kudeaketa publikoaren inguruan, kudeaketa publikoko arlo bakoitzeko pertsona arduradunekin interakzioan jarduteko hurbileko ereduaren oinarrituta, eta zerbitzu publikoaren herritarren kudeaketaren inguruan (gizarte zibila eta hirugarren sektorea), balio publikoaren sortzaile gisa (administrazioak eta elkarte-egitura)
- motibazio-sistemak, lankidetzarako, elkarren arteko sorkuntzarako, elkarren arteko kudeaketarako... balio publikoaren sorreran

Eginkizunak/jomugak:

- 1) Euskadin, munduan eta OGP bazkideetan herrita-

rrentzat irekitako eskoletako praktika berritzaileak mapatzea: ezagutu eta aztertu

2) Open Eskola eredua garatu eta diseinatzea, modu parte-hartzailean, eta eredu horretan jasotzea, hasiera batean, honako elementu hauek:

- a) Lidergoa, agente parte-hartzaileak eta lan-organoak, aurrekontua eta erakunde-konpromisoa
- b) Informazioa eta komunikazioa: kudeaketa publikoaren inguruan, kudeaketa publikoko arlo bakoitzeko pertsona arduradunekin interakzioan jarduteko hurbileko ereduetan oinarrituta, eta zerbitzu publikoen herritarren kudeaketaren inguruan (gizarte zibila eta hirugarren sektorea), balio publikoaren sortzaile gisa (administrazioak eta elkarre-egitura)
- c) Motibazioa eta irakaskuntza-ikaskuntza, lankidetzarako, elkarren arteko sorkuntzarako eta elkarren arteko kudeaketarako, balio publikoaren sorreran

3) Open eskola inplementatzea

4) Emaizak eta eraginak ebaluatzea, segmentu kritikoaren arabera banatuta, eta parte hartzeko metodologien bidez

5) Eredua doitzea eta hura orokortzeko gida, eskuliburu eta orientazioak garatzea

Epeak:

1-2 ekintzak: 2018ko irailetik 2019ko ekainera

3. ekintza: 2019ko uztailetik 2020ko maiatzera

4. eta 5. ekintzak: 2020ko ekaina eta abuztua

1. Nor izango da buru eta zergatik

Gasteizko Udala eta Arabako Foru Aldundia; izan ere, Gasteizko Udalak herritarrentzako eskola irekia du.

2. Inplikatu beharreko erakunde eta pertsonak

Zuzenean jardungo dutenak: Bilboko Udala eta Inno-basque.

Eusko Jaurlaritza, 3 foru-aldundiak, hiriburuetako 3 udalak eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkartea inplikatu dira, erakunde publiko diren aldetik.

Parte hartzeko prozesuan, Foro Irekiaren bidez, konpromisoaren garapenean parte hartzera gonbidatuko diren erakunde eta pertsonak identifikatu dira.

3. Konpromiso-mota

Transbertsala. Eredua oinarriak partekatuko dira, apurka ezartzeko interesa duten EAEko administrazioetan.

4. Lantzen duen problematika

Administrazio guztiok ari gara parte hartzeko prozesuak abiarazten. Hala ere, prozesuek beti ez dute interesa eragiten herritarren artean eta ez dira beti efikazak, proposamenak, eztabaida edo premia konplexuetarako irtenbideak sortzeko. Sarritan, administrazioak administrazio izaeran komunikatzen du, eta herritarrak ez dira erakarrita sentitzen parte hartzeko edo, parte hartzen badute, ez dute uste nahikoa balioesten direnik beren ekarpenak. Elkar behar duten bi alde dira eta elkarlanean lan egiten ikasi behar dute, ondasun erkiderako.

Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria 2014an prestatu zen, eta, prestaketa-lanean, 600 pertsonak eta 150 erakundek baino gehiagok parte hartu zuten; bertan, zabalkunde-fasean garatzeko 10 faktoreen artean, honako hau identifikatzen zen:

6- Nola sustatu kultura parte-hartzaile bat (nola irakatsi parte hartzen, nola ikasi, nola sortu kultura), eta zein den Administrazioaren papera kulturaren sustapenean: partaidetza-hezkuntza, parte hartzearen aintzatespen soziala, solaskide legitimoen aintzatespena, partekaturiko gune eta baliabideak, eta abar.

7- Parte hartzeko gaitasunak (politikoak eta herritarrenak) eta nola garatu.

5. Balorazioa: Ekar dezakeen eragina

Ekimen horren bidez, parte hartzeko kultura sustatzen laguntzeko eredia sistematizatu ahalko da, eta, horretarako, gaitasunak garatuko dira herritarren artean eta eragile publikoen artean, lankidetzarako, eta horrek eragina izango du euskal gizartearen heldze demokratikoan.

Hedapenerako gakoak, Foro Irekian landu direnak

OPEN ESKOLA pilotua diseinatzeko, Euskadin egindako antzeko proiektuak identifikatu eta diseinuan kontuan hartu behar dira.

OPEN ESKOLAREN EREDU bat behar dugu. Open eskola ezarriko da, pilotu gisa, bere lurraldean hura abian jartzeko interesa eta konpromisoa agertzen duen udalerri batean, gutxienez, baina edozein udalerrirentzat diseinatu behar da (molda dadila beste baliabide eta tamaina batzuetara).

Gaikuntza eta motibazioa udalerri-mailan lehentasunezkoak diren eremuekin lotu behar dira: herritarren interesekoak diren gaietan entrenatu / ikasi / trebatu behar da.

5. KONPROMISOA: INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA

1. Konpromisoaren deskribapena (zertan datzan, jomugak, emaitzak, epeak...)

Izenburua: Integritatearen Euskal Sistema.

Deskribapena: Helburua da oinarriak ezartzea euskal administrazioen integritate-sistema inplementatzeko, gure erakundeen azpiegitura etikoa sendotuko duena, eta, horretarako, integritatearen politika sustatzea, baina ezin izango da legezketasuna betetzera mugatu, alegia, urrats irmoak eman beharko ditu erakunde-integritateko esparrua eraikitzeke eta eraginkorra izateko eta, era berean, herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuen onerako administrazioaren etekina hobetuko duen kudeaketa publikoan jardunbide egokiak ezarri eta garatzeko.

Eraiki beharreko sistemak printzipioak, eredia eta askotariko tresna eta bitartekoak identifikatuko ditu, administrazio bakoitzaren autoantolaketaarako aukera ekarriko dutenak, apurka antolakuntzaren kultura bat ezartzeko, honako xede hauekin:

- goi-kargudunen eta zuzendaritzako langile publikoen jokabide etikoa bermatzea eta, horretarako, bete behar dituzten jokabideko arau, balio eta printzipioak hartzea eta hura aplikatu daitekeela eta eraginkorra dela ziurtatzen duten berme-sistemak onartzea, besteak beste, kontsultarako, kexetarako edo salaketetarako

postontziak, etika-batzordeak, pertsona salatzailea babesteko prozedurak, zehapen-araubideak eta abar

- administrazio publikoetako langileen jokabide etikoa bermatzea eta, horretarako, kodeak, jarduketa irregularrak salatzekeko babes-sistemak, diskrezionalitatea eta arbitrariotasuna kontrolatzeko jarduketan prozedurak onartzea
- langile publikoen postuen hautaketa- eta hornidura-prozesuetan, kontratuen esleipenetan, dirulaguntzak ematean... jardunbide egokiak prebenitzea eta sustatzea.
- jarduera publikoaren kudeaketan arriskuez ohartarazten duten informazio-sistemak ezartzea. Kontua da aurreikusleak izatea eta erreaktiboak, zenbait egiaztapenen bidez
- Euskadin integritatearen kontrol eta jarraipenerako sistemak ezartzea
- integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat garatzea

Sistemak euskal administrazio guztientzako oinarritzko estandarra jasoko du, eta beste estandar aurreratu bat, abiapuntuko egoera hobean daudenei aurrera egiten laguntzeko.

Irismena: Bertikala. Euskal administrazio guztien parte-hartzearekin, beren abiapuntuko mailaren arabera.

Helburu orokorra: Identifikatzea sistemako zein osagaiak prebenitu eta detektatu ditzakeen integritaterik ezerako arriskuak, eta horiek saihesteko beharrezko jarduketa endogenoak eta exogenoak diseinatzea. Egiaztatu da gobernantza onaren bidez herrialdeek beren ongizataren pertzepzio-indizeei eustea edo hobetzea lortu dutela, bai eta krisi ekonomikoan ere. Emaiztekin erakusten dutenez, gobernantza hobea duten herrialdeetan bizi direnek beren bizitzekin pozago egoteaz gainera, gobernantzaren hobekuntzek aldaketa esanguratsuak ere eragin dituzte horiek egin diren herrialdeetako pertsonen bizi-kalitatean.

Erakunde publikoen eredugarritasuna eta, batik bat, horietan herritarrei zerbitzu publikoaren eginkizunak betetzen dizkieten pertsonena balio handiko ezaugarria da erakundeen gaineko eta horietako zerbitzari publikoen gaineko konfiantza sendotzeko. Beharrezko gertatzen da, beraz, tresnak diseinatzea, herritarrek pertsona zerbitzari publikoen kudeaketan eta horien integritate pertsonalean duten konfiantza sendotu eta sortzeko.

Helburu operatiboak / emaitzak:

- Euskal integritate-sistema baten osagaiak garatzea, goi-kargudunen eta zuzendaritzako langile publikoen jokabide etikoa bermatuko duten printzipio, eredu, tresna eta mekanismoekin (bete behar dituzten jokabideko arau, balio eta printzipioak onartzeko eta horiek aplika daitezkeela eta eraginkorrak direla

ziurtatzen duten berme-sistemak ezartzeko), horiek inplementatzeko eta kontrolatzeko arauak ezarri behar izatea baztertu gabe

- Integritatearen euskal sistema baten osagaiak garatzea, administrazio publikoetako langileen jokabide etikoa bermatuko duten printzipio, eredu, tresna eta mekanismoekin (jokabide-kodeak aintzat hartzeko; langile publikoek jarduketa irregularrak sala ditzaten babes-sistemak ezartzeko; diskrezionalitatea eta arbitrariotasuna kontrolatzeko jarduketan prozedurak ezartzeko...), horiek inplementatzeko eta kontrolatzeko arauak ezarri behar izatea baztertu gabe
- Integritatearen euskal sistema baten osagaiak garatzea, langile publikoen postuen hautaketa- eta hornidura-prozesuetan, kontratuen esleipenetan, dirulaguntzak ematean eta abarretan jardunbide egokiak sustatu dituzten printzipio, eredu, tresna eta mekanismoekin, horiek inplementatzeko eta kontrolatzeko arauak ezarri behar izatea baztertu gabe
- Euskadin integritatearen kontrol eta jarraipenerako sistemak diseinatzea
- Integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat garatzea

Eginkizunak/jomugak:

- Lurraldean eta OGP bazkideen artean integritate-sistemen jardunbide berritzaileak mapatzea

- Herritarrekin kontrastatutako integritatearen euskal eredua definitzea
- Euskadin integritatearen kontrol eta jarraipenerako sistema bat diseinatzea
- Integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat eta integritateari eta etika publikoari buruzko apurkako prestakuntza-programa bat diseinatzea
- Kontrastatutako eta ebaluatutako esperientzia pilotua(k)

Epeak:

- ekintza: 2018ko irailetik 2019ko urtarrilera
- ekintza: 2019ko urtarriletik 2019ko irailera
- eta 4. ekintzak: 2019ko ekainetik 2019ko irailera
- ekintza: 2019ko urritik 2020ko ekainera

2. Nor izango da buru eta zergatik

Gipuzkoako Foru Aldundia, integritate-sistema zabala baitu.

3. Inplikatu beharreko erakunde eta pertsonak

Zuzenean jardungo duena: Arabako Foru Aldundia eta Bilboko Udala.

Eusko Jaurlaritza, 3 foru-aldundiak, hiriburuetako 3 udalak eta Eudel-Euskal Udalerrien Elkarteak inplikaturik dira, erakunde publiko diren aldetik.

Euskal administrazioetan dagoeneko badauden etika-batzordeetako kideak gonbidatuko dira parte hartzera, beren esperientzia eta integritate-sistemen hobekuntzari eta aurrerapenari egiten dizkieten ekarpenak ezagutzeko.

Parte hartzeko prozesuan, Foro Irekiaren bidez, konpromisoaren garapenean parte hartzera gonbidatuko diren erakunde eta pertsonak identifikatuko dira.

4. Konpromiso-mota

Bertikala. Ereduaren oinarriak partekatuko dira, apurka ezartzeko interesa duten administrazioetan.

5. Lantzen duen problematika

Gobernantza onaren ideia, erakunde-ekintzaren ardatz gisa, antolamendu barneko erronketan ez ezik, antolamenduen arteko harremanetan ere zentratzen da, bai eta sozietate zibilarrekin konpromisoak eta harremanak ehuntzen ere, eta hura politika publikoen sustapenaren, diseinuaren, betearazpenaren eta ebaluazioaren parte-hartzaile egiten du.

Etika publikoak eta gobernantza onak dituzten tresna, prozedura eta tresnak etengabe ari dira bilakatzen, eta horrek diziplina hori berrikuntza praktikoko gehieneko arloetako bat dela erakusten du. Hori dela eta, premia berrietara egokitu behar da eta aurrez aurre ditugun erronka berrien kontziente izan. Administrazioak herritarrek galdu duten konfiantza berreskuratu behar du, bai eta gizartearen etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko gaitasun estrategikoa eta haren eraketa demokratikoa ere, eta, horretarako, gizartearen inplikarazi behar da, erronka eta etorkizuneko konpromiso horiek elkarrekin kudeatzeko, eta kudeaketa horretan esku hartzeko aukera duten gizarte-eragileen aniztasuna aitortu behar da, eta horien arteko mendekotasuna eragin behar da, erabaki publikoetan eta erantzukizunak hartzean lankidetzeta eta parte-hartzea eragiteko.

Beraz, politika egiteko beste modu bat abiarazi behar dugu, administrazioak herritarrekin harremanetan egoteko eredu berria, parte-hartzea areagotzen duena, efizienteagoa, osoagoa eta gardenagoa.

6. Balorazioa: Ekar dezakeen eragina

Etika publikoaren sistema sendo hori eratzen duten tresna eta mekanismo horiek modelizatu eta pixkanaka ezartzea funtsezkoa da erakunde publikoekiko konfiantza berreskuratu eta balio publikoa sortzean erantzunkidetasuna lortzeko; gakoak gizarte demokratikoan.

Hedapenerako gakoak, Foro Irekian landu direnak

Xedea ez da tresnak garatzea soilik, sistema bat modelizatzea eta ezartzea helburu izan behar da.

Sistemak estandarizatu egon behar du eta apurka aplikatzea izan behar du, etengabe alderdi sozialean doitzen.

Ez da baztertu behar etorkizunean lehendik dagoen araudian txertatzeko edo araudi berri bat (bere adierazleekin, kontrolekin eta abarrekin eta zigor-sistema batekin) sustatzeko arautu ahal den hori aztertu ahal dela.

Sistemak ulergarria izan behar du.

Integritatean eta etika publikoan oinarritutako hezkuntza, hezkuntza-sisteman txertatzeko modua modelizatu behar da.

PLANAREN HEDAPENA: BI URTE HAUETAN NOLA EGINGO DUGU LAN?

Konpromisoen arabiarako taldeak, lidergoa, balioak

Plana inplementatzeko, konpromisoen arabiarako 5 talde hedatuko dira, ezarritako konpromiso bakoitzeko talde bat. Talde horietako burua fitxa bakoitzean azaltzen den erakundea edo erakundeak izango dira, eta horiekin batera parte-hartzaile izango dira talde sustatzaileko gainerrako erakundeak eta herritar antolatutak nahiz antolatu gabeak.

Proiektuen kudeaketa arinarako printzipioei eta metodologiari jarraituko diete. Honako hauek dira metodologia horren oinarriak:

- Inplikatu beharreko pertsonak eta pertsona horien elkarrekintza baloratzea, prozesuen eta tresnen gainetik. Taldeetan herritarren ikuspegia, adituen ikuspegia eta erakundeen ikuspegia txertatuko dira. Konfiantza-harremana, motibazioa, talentua eta aurrez aurreko elkarriketak, lankidetzak-lanerako gakoak. Autoantolatutako taldeak; erabakiak hartzeko, ikasketak eta ezagutza transferitzeko autonomia daukate eta Foru Erregularrari eta Foru irekiari kontuak ematen dizkiote.
- Funtzionatzen duten jardunbide egokien balioa azpi-

marratzea, dokumentazio zehatz-zehatzaren gaineratik: dokumentazioa beharrezkoa da, ezagutza transferitzeko bidea ematen duelako, baina dokumentazioa idatzi behar da soil-soilik lortu nahi dugun produktuari/zerbitzuari zuzeneko balioa ematen dion horretan.

- Hornitzaileekiko lankidetzak baloratzea, kontratuen negoziazioaren gainetik: kanpoko kontratuak formalizatuko dira lanak egikartzeko, ahal dela hornitzailea konpromisora erakartzeko, iterazio bakoitzean ahalik eta balio handiena ekartzea helburu dela. Kontratazio horiek talde sustatzaileko erakundeek batera finantzatu dituzte.
- Aldaketari emandako erantzuna baloratzea, aurrez ezarritako plan baten jarraipena baino gehiago: Aurrea hartzea eta egokitzea, plangintzaren eta kontrol prediktikoaren aurrean. Betekizun aldakorak onartzen dira. Interesa jartzea produktuen entrega arautuan, ez igarotako denboraren eta planifikatutako denboraren arteko aurkaritzan. Jomugak produktuei/zerbitzuei lotuta doaz, ez nahitaez ondoz ondokoak diren faseei lotuta.
- Kontrol sotila: Foru Erregularrak kontrolgune batzuk ezartzea jarraipen egokia egiteko, taldearen askatasuna eta sormena murriztu gabe.
- Ezagutza hedatzea eta transferitzea: sortutako produktuei/zerbitzuei bateratzeko uneak bilatzea, produktu eta zerbitzu horiek orokor bihurtzeko. Bestalde,

apurka sortzen den informazioa eta dokumentazioa askatasunez eskura dadila bultzatzea, OGP Euskadiren web orriaren bitartez.

Plan honetan definitutako konpromiso eta erronkei hurrengo bi urteetan heldu beharko zaie, lankidetzak publiko-pribatu estuaren eta herritarren parte-hartzearen esparru batetik. Plana arrakastaz inplementatzeko baldintza izango da, neurri handian, bai edukiak bai prozesua eskuragarriak eta ulertterazak izan daitezen bideratzea (lortzea). Horregatik, ezinbestekoa izango da herritarrentzako bertsioa prestatzea (herritarrentzako bertsioa prestatzeko konpromisoa dago), hura hedatzeko abiapuntu eta OGP ezagutzeko oinarri izango dena Euskadiko herritarren mailan.

Illo horretan, konpromisoka antolatuta Ekintza Planaren hedapena gidatuko duten taldeen ardura izango da berrikustea, herritarren ikuspegitik, bost konpromisoetako bakoitzaren hedapenean aurre egin beharreko egiazko erronka soziala (beharrizan, arazo edo aukera moduan hartuta). Ekintzen diseinuan eta garapenean bertan, haien hedapenak eta jarraipenak hasieratik eskatuko dute konpromisoaren definizio hurbila eta herritarrei egokitu, gizarteko kide izatearen sena eta balio publikoaren sorrera partekatua bermatuko dituen.

Beheko taulan jaso dira prozesuaren, emaitzaren eta eraginaren adierazle aurreikusgarriak; horiek zehaztu egin beharko dira konpromisoka antolatutako taldeetan.

1. KONPROMISOA	PROZESUA EDO EMAITZA zer eta nola	ERAGINA (2020tik aurrera neurtuko da) zertarako
1) KONTUAK EMATEA AGINTALDIKO PLANEN BIDEZ	• Badago agintaldiko planei buruz argitaratu beharreko informaziorako egitura komun adostua, udalen lurralde-mailei eta tamainari egokitua • Badago lehentasun politikoen / herritarren lehentasunen dekalogo komun adostua, erakundeek argitaratu beharrekoa • Badago agintaldiko planen aurrerapenaren jarraipenari buruzko informaziorako egitura komuna • Badago auditoretza sozialaren estandar komun adostua, kolektiboen eta kanalen askotarikotasuna kontuan hartzen duena • Badago aplikazio bat, beta bertsioan, software librean, agintaldiko planei lotutako magnitude, ekintza eta kudeaketa-adierazle nagusiak jasotzeko • Aplikazio horren ezarpena eta testatzea • eredua udalerri batean • Konpromisoaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lan-saioen kopurua • Konpromiso-taldeko kideek elkarlanaren prozesuekin eta emaitzekin duten gogobetetze-maila • Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila • Herritarrek ereduarekin duten gogobetetze-maila (baliagarria, ulertteraza, herritarren ekarpena aktibatzen duena)	• Eredua noraino dagoen ezarrita lurralde-maila guztietan, udalerriaren tamainaren arabera, gobernatzen duen alderdiaren arabera... (ezarpen-maila) • Herritarrek agintaldiko planetarako egindako kontsulta eta ekarpenen maila (erabiltze-maila) • Herritarrek argitaratutako informazioarekin duten gogobetetze-maila (argitaratutako informazioaren kalitatea) • Agintaldiko planen edukiek garapen jasangarrirako 2030 Agendarekin duten lotura • Bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboek (desgaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, langabeak, haurrak, emakumeak, gazteak...) egindako kontsulta eta ekarpenen maila • OGPko beste gobernu batzuekin zenbat elkarlan/ aliantza egin diren agintaldiko planen bitartez kontuak emateko proiektuak esperimentatu eta testatzeko (jardunbide egokien trukea)

2. KONPROMISOA	PROZESUA EDO EMAITZA zer eta nola	ERAGINA (2020tik aurrera neurtuko da) zertarako
2) OPEN DATA ETA LINKED OPEN DATA	• Badago datu publikoak irekitzeko orientazioen estandar komun adostua • Badago identifikatuta herritarren intereseko datu multzo adostu bat (herritarren motibazio zehatzak), EAEko administrazioetan modu errepikatuan zein modu sakabanatuan kokatua • Irizpideak identifikatzen dira, eta datu ireki edo datu estekatu gisa argitaratu beharreko datu multzo elkarreragingarrien bolumen adierazgarria dago hautatuta • Datu ireki edo datu estekatu gisa argitaratu da erakundearteko jatorria duten eta herritarrentzat interes nabarmena duten datuen bolumen garrantzitsua • Bi zerbitzu sortu dira datu estekatuekin • Konpromisoaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lan-saioen kopurua • Konpromiso-taldeko kideek elkarlanaren prozesuekin eta emaitzekin duten gogobetetze-maila • Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila • Sortutako zerbitzuekin eta datu irekien multzoekin herritarrek duten gogobetetze-maila (baliagarria, ulerterraza, herritarrek berrerabiltzea aktibatzen duena)	• Datuen irekiera normalizatzeko oinarrien ezarpen-maila lurralde-maila guztietan: Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak (ezarpen-maila) • Datu irekien multzoen erabilera- eta deskarga-maila (erabilera- eta berrerabiltze-maila) • Sortutako zerbitzuei egindako kontsulten maila (erabilera- eta berrerabiltze-maila) • Herritarrek argitaratutako informazioarekin eta sortutako zerbitzuekin duten gogobetetze-maila (argitaratutako informazioaren kalitatea) • Datu publikoekin zerbitzuak sortzeko jardunbide egokiak trukatzeko aldera OGPko beste gobernu batzuekin egindako elkarlanen / aliantzen kopurua

3. KONPROMISOA	PROZESUA EDO EMAITZA zer eta nola	ERAGINA (2020tik aurrera neurtuko da) zertarako
3) HERRITARREN PARTE- HARTZEAREN ILAB-A	• Badago foro bat herritarren parte-hartzearen ilab gisa eratua Euskadirentzat (osaera askotarikoa duena, hainbat erakunde-maila integratzen dituen, trukerako, esperimentaziorako, baterako sorkuntzarako gune gisa...) • Badago herritarren parte-hartzearen arloko toki- eta nazioarte-mailako jardunbide berritzaileen mapa bat (esperientziak, proiektuak eta agenteak) • Badago herritarren parte-hartzeari buruzko laborategi eredu adostua (kudeaketa- eta funtzionamendu-eredua), beste lurralde-ingurune batzuetara heda daitekeena • Bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboen (degaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, langabeak, haurrak, emakumeak, gazteak...) parte-hartze maila ilab-ereduaren diseinuan • Pilotuak identifikatzeko prozesu irekia egin da herritarren/erakundearen intereseko irizpideen arabera; bideragarritasuna lidergoaren arabera eta epeak... • 4 pilotu gauzatu dira • Bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboen (degaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, langabeak, haurrak, emakumeak, gazteak...) parte-hartze maila pilotuetan • Modu parte-hartzailean ebaluatu dira 4 pilotuen emaitzak eta eraginak • Jardunbide egokiak orokortzeko orientazioak dokumentatu egin dira • Jardunbide egokiak hedatu egin dira • Herritarren parte-hartzearen sustapenean inplikaturako hornitzaileen katalogo-eredu bat aztertu da, intereseko taldeak ondo kudeatzeko • Konpromisoaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lan-saioen kopurua • Konpromiso-taldeko (ilab-ekoa bera) kideek elkarlanaren prozesuekin eta emaitzekin duten gogobetetze-maila • Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila • Herritarrek parte hartu duten pilotuekin duten gogobetetze-maila	• Ilab-aren egonkortasun-maila 2018-2020 Plana amaitu eta gero (jasangarritasuna) • Parte hartzeko prozesuak jardunbide egokien orientazioen arabera inplementatzearen maila (jardunbide egokien orokortze-maila) • OGPko beste gobernu batzuekin zenbat elkarlan/ aliantza egin diren herritarrek parte hartzeko proiektu berritzaileak esperimentatu eta testatzeko (jardunbide egokien trukea)

4. KONPROMISOA	PROZESUA EDO EMAITZA zer eta nola	ERAGINA (2020tik aurrera neurtuko da) zertarako
4) OPEN ESKOLA	• Badago Euskadin, munduan eta OGP bazkideetan herritarrentzat irekitako eskoletako praktika berritzaileen mapa • Badago Open Eskolaren eredu adostua, Planean definitutako a, b eta c elementuak biltzen dituena • Udalerrri batean open eskola inplementatu da • Ebaluatu dira hasierako eraginak eta emaitzak, segmentu kritikoen arabera banatuta, eta parte hartzeko metodologiaren bidez • Eredua egokitu da, ebaluazioaren ondoren • Hura orokortzeko gidak, eskuliburuak eta orientazioak garatu dira • Bizitza publikoan parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboak (desgaitasuna duten pertsonak, migratzaileak, langabeak, haurrak, emakumeak, gazteak...) parte-hartze maila Open Eskolaren ereduaren diseinuan • Konpromisoaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lan-saioen kopurua • Konpromiso-taldeko kideek elkarlanaren prozesuekin eta emaitzekin duten gogobetetze-maila • Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila • Herritarrek parte hartu duten prozesuekin duten gogobetetze-maila	• Open Eskolaren egonkortasun-maila 2018-2020 Plana amaitu eta gero (jasangarritasuna) • Open Eskolaren ereduaren ezarpen-maila beste lurralde batzuetan (zabaltze-maila) • Sortutako open eskolen jardura-maila (prozesuak, parte-hartzaileak, parte-hartzaileen dibertsitatea...) • OGPko beste gobernu batzuekin zenbat elkarlan/ aliantza egin diren herritarrentzako eskola irekien proiektuak esperimentatu eta testatzeko (jardunbide egokien trukea)

5. KONPROMISOA	PROZESUA EDO EMAITZA zer eta nola	ERAGINA (2020tik aurrera neurtuko da) zertarako
5) INTEGRITATEAREN EUSKAL SISTEMA	• Badago lurraldean eta OGP bazkideen artean integritate-sistemen jardunbide berritzaileen mapa • Badago euskal integritate publikoaren eredua, bere osagaiekin: kargu publikodunen jokaera etikoa, langile publikoak, kontratuen adjudikazioa, diru-laguntzak ematea, langileak hautatzeko prozesuak... • Badago Euskadiko integritatearen kontrol eta jarraipenerako sistema bat • Badaude integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat eta integritateari eta etika publikoari buruzko prestakuntza-programa progresibo bat • Integritatean oinarritutako hezkuntza-eredu bat eta integritateari eta etika publikoari buruzko prestakuntza-programa progresibo bat diseinatzea • Esperientzia pilotu bat egin da • Esperientzia pilotua ebaluatu egin da • Konpromisoaren inplementazioan parte hartzen duten pertsonen kopurua / Lan-saioen kopurua • Konpromiso-taldeko kideek elkarlanaren prozesuekin eta emaitzekin duten gogobetetze-maila • Foro Erregularrak egindako prozesuekin eta amaierako produktuekin duen gogobetetze-maila • Herritarrek parte hartu duten prozesuekin duten gogobetetze-maila	• Eredua noraino dagoen ezarrita lurralde-maila guztietan, udalerriaren tamainaren arabera, gobernatzen duen alderdiaren arabera... (ezarpen-maila) • Integritate-sistemen arloko jardunbide egokiak trukatzeko aldera OGPko beste gobernu batzuekin egindako elkarlanen / aliantzen kopurua

Zergatik?

Erakundearteko plan bat?

Euskal herritarren bizitza eta parte-hartze politikoa eskumen – edo **erakunde** - mugez ulertzen ez duten espazioetan eta uneetan gertatzen dira

Erakundearteko lankidetzan eta herritarren parte-hartzean oinarrituko den **gobernu irekiaren** eredia BEHAR dugu

Parte hartu OGP-an?

Erronkak eta kezak partekatzen dituzten tokiko gobernuak

Elkarrengandik ikasteko eta jardunbide egokiak elkar trukatzeko aukera

Nola?

Gobernu Irekiaren Euskadirentzako Ekintza Plana



Elkarlanerako 2 urte

5 konpromiso

- Kontuak ematea
- Open data eta linked data
- I-lab herritarren parte hartzea
- Open eskola
- Integritatea



Lan egiteko eredu irekia:

Foro Erregularra:

osaketa paritarioa, ordezkaritza publiko eta pribatuarekin

Foro Irekia: online eta aurrez-aurreko bilerak

Konpromisoen arabera lan taldeak, herritarren, teknikarien eta politikarien parte hartzearekin



Balioak

- Erabilerraztasuna
- Hizkuntza erraza
- Lankidetzak kultura
- Koordinazioa
- Progresibotasuna
- Lidergo partekatua

Open Government Partnership
Euskadi

Zer?

Abiapuntua ERRONKAK

Gardentasuna

Berrerabilpena

Kontuak ematea

Ebaluazioaren kultura

Integritatea

Oinarriak bateratu

Kudeaketa aurreratua

Jardunbide egokiaren orokortzea

Datu irekiak

Zerbitzuak sortu

Parte-hartzea

Esperimentazioa eta berrikuntza

Kultura digitala

Elkarreragingarritasuna

Herritarren arreta zerbitzuak

Sistemak osatu

ERANSKINAK

1. EUSKADIKO GOBERNU IREKIAREN ARLOKO INDARGUNE ETA ERRONKEN GAINEKO KONTAKIZUN PARTEKATUA

Xedea: guztion artean kontakizun bat osatzea 2018-2020 Ekintza Planean sartu beharreko konpromisoak zehazteko, bi analisi ardatz hartuta:

- Eurretan bermatzeko eta aurrera egiteko bideragarri gertatzen diren indarguneak
- Lankidetzaren eta erakundearteko bultzadaren bidez ekin geniezaiekeen erronkak

Kontakizun hori guztion artean osatzeak aukera emango digu hobeto jakiteko erakunde bakoitza zer egiten ari den, zeintzuk diren haren interesak, batera gauza daitezkeen proiektuak, partekatu eta toki-erakunde txikiagoei eskaini lebizkiekeen tresnak, eta hori guztia nola ezkontzen den herritarren interesekin eta askotariko sentikortasunekin.

Oinarrizko dokumentua talde sustatzaileak egin zuen (Eusko Jaurlaritzak, 3 foru-aldundiek, hiriburuetakako hiru udalek eta Innobasque- Berrikuntzarako Euskal Agentziak –publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako entitatea– osatzen dute talde hori).

Dokumentu hori Foro erregularrean eztabaidatu eta abe rastu zen (Taldea sustatzaileak, Eudelek eta herritar antolatzen diren taldeak osatzen dute Foro hori).

2018-2020ko Ekintza Plana egin eta inplementatzen den bitartean, dokumentu horrek irekita jarraituko du, ekarpenak egin ahal izateko helburu, bitarteko edo lortu beharreko produktuei buruz egin beharreko aldaketan arloan.

EUSKO JAURLARITZAK, HIRU FORU-ALDUNDIEK ETA LURRALDE HISTORIKOETAKO HIRIBURUETAKO HIRU UDALEK GAUZATU EDO PLANIFIKATU DITUZTEN EKIMENEN ATARIKO AZTERKETA.

Erakundeek ekimenak, oro har, ardatzetan multzokatu dira euren tipologiaren arabera: arau-garapena, planak, tresnak, antolaketa-eredua eta organoak, teknologia, lankidetzaren sare publiko-pribatuak... Horren guztiaren helburua da indarguneak eta balizko lankidetzaz-ildoak identifikatzeko eta ondorioak adostasunez ateratzen joateko bateratze-lana antolatzea. Hasierako dokumentu bat da, eta, beraz, 2018-2020 aldirako ezarri beharreko konpromisoak diseinatzeko aukera ematen du. Jarraian, funtsezko ideia batzuk aurkeztu ditugu, Foro Erregularrean sortuak, erakundearteko bileretan, OGP hautagaitza prestatu aurretik, honako ardatz hauen inguruan:

1. Gardentasuna
2. Open data
3. Kontu-ematea (politika publikoen ebaluazioa barne)
4. Herritarren parte-hartzea eta lankidetzaz
5. Integritatea
6. Kultura digitala

7. Kudeaketa publiko aurreratua

8. Herritarrentzako arreta-zerbitzuak

1.- GARDENTASUNA

GARDENTASUN-ATARIKAK

Indargunea – Posizionamendua

Gardentasun-atariak finkatuta daude Euskadin, eta Nazioarteko Gardentasuna bezalako erakunde erreferenteek ebaluatu dituztenean, emaitza ezin hobeak izan dituzte:

- Eusko Legebiltzarrak 100etik 90,6 puntu eskuratu zituen 2016an (parlamentuen indizea)
- 2012an, 2014an eta 2016an Eusko Jaurlaritza lehen postuan egon da, 100 puntutik 100 puntu lortuta 2014an eta 2016an, eta azken urte horretan lehenengo postua eskuratu zuen lehen aldiz egin zen ebaluazio kualitatiboan ere (autonomia-erkidegoen indizean).
- 2015ean ebaluatuta, hiru aldundiek 100etik 81 puntutik gora izan zituzten (Bizkaian 100, Araban 83 eta Gipuzkoan 81) (aldundien indizea) (INDIP)
- 2017an EAEn ebaluatu ziren udal guztiek 100etik 95 puntutik gora eskuratu zituzten (100 puntu Bilbon, Barakaldon eta Gasteizen eta 95,6 puntu Donostian) (udalen gardentasun-indizea)
- Uraren Euskal Agentziak (URA) 2015ean lehen postua lortu zuen ura kudeatzen duten organoen ebaluazio zor-

rotzean, 100etik 94,9 puntu eskuratuta (uraren garden-tasun-indizea)

Baina, oinarritzkoa eta ezinbestekoa da legea betetzea; horrek exijentzia-maila altua ezartzen die, dagoeneko, udal txikiei (2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa), eta zaila egiten zaie betetzea, baliabide urriak baitituzte gai hau kudeatzeko. Legea gehi nazioarteko gardentasun-adierazleak betetzeko, udalek 196 gardentasun-adierazle baino gehiago publikatu behar dituzte.

Bestalde, ikusi da herritarrek gutxi erabiltzen dutela informazioa. Horren arrazoiak aztertuta, honako hau antzematen da:

- Informazio asko publikatzen da, baina ez da oso irisgarria, ez eta ulergarria ere; saiatu behar da informazioa modu erakargarriagoan bistaratzen eta aurkezten ("Herritarren iritzia atariei buruz").
- Gardentasun-atarietara sartzea baino naturalagoa da informazioa zeharkakoa izatea erakundearen web ezberdinetan zabalduz ("Gardentasuna gune guztietan").
- Difusio-lan gutxi egin da informazio publikorako irispiderako eskubideari buruz eta kontuak emateko publizitate aktiboari buruz.

Aurrera egitea arlo hauek garatzeko: irisgarritasuna, informazioaren ulertarritasuna, formatu ireki eta berrerabilgarriak, informazioaren eguneratzea, datu estekatuak eta herritarren bistaratzeak.

Zabaltzea eta sentsibilizatzea informazio publikorako irispiderako eskubideari buruz eta publizitate aktiboaren aldeko betebeharrei buruz.

Eredu partekatutak ezar litezke, herritarrek edozein erakundetarako informaziorako irispidea izan dezaten. Egin daiteke, halaber, dagoeneko Gipuzkoak egiten duena: foru-aldundiek beren plataformak udaletxeei uztea, hau da, gardentasun-atariak publikatzeko aukera ematea.

Erronkak

Aurrera egitea arlo hauek garatzeko: irisgarritasuna, informazioaren ulertarritasuna, formatu ireki eta berrerabilgarriak, eta informazioaren eguneratzea, datu lotuak eta herritarren bistaratzeak.

Informazio publikoari sarbideko eskubidearen gainean hedatzea eta sentsibilizatzea eta publizitate aktiboko obligazioak.

Lidergoa lortzea Nazioarteko Gardentasunak etorkizunean ezartzen dituen ebaluazio kualitatiboetan, 2016an autonomia-erkidegoen indizearekin lortu dugun moduan.

GARDENTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Indargunea - Posizionamendua

EAEko erakundeek eta bertako administrazio instituzionalak oinarritzko araudia betetzen dute, oro har, eta publizitate aktiboaren arloan araudiaz gaindiko konpro-

misoak hartzeko joera dute, informazioa eskuratzeko eskaerei epe laburragoan erantzun ohi diete, eta gardentasunaren arloko betebeharren jarraipen eta kontrolerako organoak sortzen dituzte.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiek badute euren araudia (1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena; 1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa (otsailaren 24ko BAO, 37. zk.), Bizkaiko gardentasunari buruzkoa; 4/2014 Foru Araua, otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa).

Toki-erakundeek gardentasunari buruzko autonomia-erkidegoko araudi propioa dute, oso aurreratua: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea; eta zenbait udalek badute euren araudia (Alkatetzaren 2015eko azaroaren 19ko Dekretua, Gasteizko Udalean gardentasunaren kultura bultzatzekoa...)

Erronkak

Euskal Autonomia Erkidegoak gaur egun ez du erregulazio propiorik, eta oinarritzko araudia berrikuspen eta erreforma-prozesuan dago. Bestalde, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta salatzailak babesteko araudiak dagoeneko Kongresuko zuzenketen fasea bukatu du, eta Kontratu Publikoen Lege berria indarrean jarri da.

Eusko Legebiltzarrak gardentasunari buruzko EAEko

lege zorrotz bat onartu behar luke, autonomia-erkidegoko araudia homogeneizatzeko duena, gardentasuna sustatu eta kontrolatzeko organoei eta bermeei dago-kienez. Gaur egun zuzenketen fasean dago gardentasu-nari, herritarren parte-hartzeari eta gobernamentu onari buruzko lege-proposamen bat, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak talde parlamentarioek aurkeztua.

Beste alde batetik, erakunde publikoen bultzadaren beharra dago, diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten edo zerbitzu publikoetan jarduten duten erakunde pribatuek dagokien gardentasun-araudia bete dezaten, ez baitaio eman merezi lukeen zabalkundea. Ildo horretan, autoebaluaziorako tresna komun bat erabiliko balitz betetze-maila kuantitatiboa (argitaratzen ote den) eta kualitatiboa (informazio eguneratua, ulertteraza, irisgarria eta osoa argitaratzen ote den) neurtzeko, oinarritzko araudiak, autonomia-erkidegokoak, foru-araudiak edo toki-araudiak ezartzen dituzten publizitate aktiboko betekizunak betez, bada, horrek balioko luke erakunde publiko edo pribatuen gardentasun- arloko betebeharren betetze kuantitatiboaz eta kualitatiboaz informatzeko eta hura bultzatu eta sustatzeko, alde batera utzita EAEko administrazioen edo haietakoren baten sozietate-partaidetza gehiengoduna edo gutxiengoduna edota tutoretza eraginkorra (MESTA gisako tresna, Estatuko Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak prestatua, autonomia-erkidegoekin eta AEVAL- Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Espainiako Agentziarekin batera).

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Gida batzuk prestatu zituzten erakunde pribatu horientzat. Gida erraza zen, eta proiektuan sar zitekeen.

Hori gorabehera, eta besteak beste legeak horrela ezartzen duelako, erakunde publikoek kudeaketaren kulturaren barruan sartu beharko lukete herritarrek kudeaketa publikoaren xehetasun guztiak ezagutzeko duten eskubidea, bai administrazio-egintzak egiten direnean bai zerbitzu edo politika publikoen gaineko erabakiak hartzen direnean.

Bestalde, gizarte zibilaren bitartekariak egotea eta, horiek, informazio publikoaren kontsumorako sustatzaile gisa aritzea bultzatu daiteke; Bilbao data lab izan daiteke horietako bat, adibidez. Informazio kualitatiboa sor daiteke horrela, kudeaketa publikoan dauden hutsak identifikatzeko edo ekiteko modukoak diren fenomeno nahiz beharizan sozial berriak identifikatzeko.

GARDENTASUN-ORGANOAK

Indargunea - Posizionamendua

Administrazio guztiek ezarri dituzte euren antolamenduan zenbait egitura (esaterako, gardentasuneko, gobernu irekiko edo berrikuntza publikoko zuzendaritza berriak), zenbait lanpostu eta koordinazio-organo, kudeaketa publikoaren kultura eraldatzen laguntzen dutenak, kudeaketa gardena bihurtzeko, herritarrei adminis-

trazioen erabakien eta jarduketan gaineko informazioa emateko konprometitua. Guztiek aitortzen dute kultura eta kudeaketa gardena sustatu ahal izateko beharrezkoa dela antolaketaren ikuspegi deszentralizatua eta zeharkakoa, erakunde osoari eragiten diona, eta balio hori erantsi behar zaiela edozein mailatako lanpostu eta langile guztiei (lehen lerroko arretatik hasi eta lanpostu tekniko, zuzendaritzako kide eta goi-kargudunetarako). Barruan gertatzen dena kanpoan ikusi ahal izatea da kontua.

Jarraipen- eta kontrol-organoak ere sortu izan dira, baina agian behin-behinean, autonomia-erkidegoko araudiaren zain:

- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordea ([128/2016 Dekretua](#), abenduaren 13koa, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoa)
- Arabako Foru Aldundiaren Gardentasunaren Foru Kontseilua
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Erreklamazioen Batzordea ([1/2016 Foru Araua](#), otsailaren 17koa (otsailaren 24ko BAO, 37. zk.), Bizkaiko gardentasunari buruzkoa)
- Gasteizko Udalaren Gardentasun Kontseilua
- Donostiako Udaleko Udal Informazio Unitatea

Erronkak

Erronka da, Euskadin, EAEko administrazio publiko guztietarako, administrazio instituzionalerako, erakunde

instrumental, diruz lagundutako erakunde pribatu, enpresa kontratatu eta abarretarako, gardentasunaren sustapen-, jarraipen- eta kontrol-eginkizunak bilduko dituen organo komun eta independente bat izatea, zehatzeko eskumena ere izango duena.

GARDENTASUN-PLANAK

Indargunea – Posizionamendua

EAEko ia erakunde guztiek dute planifikazioaren bat gardentasuna bultzatzeko, edo hura egiteko prozesuan ari dira, berariaz zein esparru estrategiko zabalago batean:

- Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 [Plana](#)
- Arabako Aldundiaren 2015-2019 Legegintzaldiko [Plan](#) Estrategikoa
- Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru [Plana](#)_2017-2019
- [ETORKIZUNA_ERAIKIZ](#): AGENDA ESTRATEGIKOA 2025, Gipuzkoako Aldundiarena
- Gasteizko Udalaren Gardentasun [Plan](#) Operatiboa, 2016ko ekainean egina, non kudeaketa-eredu berri bat proposatzen den: Gobernu Irekia, hiri garden eta parte-hartzailearen aldeko 2015-2019 Plan Estrategikoaren barruan kokatua
- Bilboko Udalaren Gardentasun Plan Estrategikoa
- Donostiako Udalaren Gardentasun Plan Estrategikoa

Horrek guztiak jardun egituratua dakar, konprometitua goa, esleitu beharreko bitarteko eta baliabideei, emaitzak eta eraginak ebaluatzeko aukerari eta hobekuntzarako proposamenei dagokienez.

Erronkak

Hona erronka: batera egin litezkeen ekintzak koordinatzea eta garapen, tresna, nahiz baliabideen inguruko aurrerapenak partekatzea EAEko erakundearen artean.

Eredu partekatuak ezar litezke, herritarrek edozein erakunderen informaziorako irispidea izan dezaten. Egin daiteke, halaber, dagoeneko Gipuzkoak egiten duena: foru-aldundiek beren plataformak udalei uztea, hau da, gardentasun-atariak argitaratzeko aukera ematea. Bizkaiko Gardentasunaren Atariaren bidez lurralde horretako tokiko entitateen atarietara sartzea dago. Eusko Jaurlaritzaren Gardena-Gardentasunaren Atarian bertan, Euskadiko Gardentasunaren maparen bitartez, EAEko foru-aldundien eta udal guztien atarietara sar daiteke (<http://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna/-/euskadiko-herri-administrazioetako-gardentasun-atariak/>).

GARDENTASUNERAKO TRESNAK ETA AZPIEGITURAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko erakundeek makina bat tresna garatu dituzte gardentasun-adierazleak argitaratzeko: antolaketaren eta plangintzaren gainerako informazioa, araudia eta garrantzi

juridikoko informazioa, hitzarmen, kudeaketa-gomendio, kontratu edo diru-laguntzak bezalako administrazio-egintzen gainera, ekonomikoa, ondasun higiezinak buruzkoa, zerbitzu-gutunei buruzkoa...

Badira gardentasunaren gidak, eta horien artean nabarmentzekoa da honako hau:

- Gardentasunean ontziratuko gara (eskifaiaren eskuliburua), Eusko Jaurlaritzarena

Erronkak

Erronka da tresnak partekatzea oraindik modu eraginkorrean garatu ez dituztenekin, eta EAEko administrazio guztiei interesatzen zaizkienak elkarrekin garatzea, hala nola bistaratze grafikoak, erakunde-ekitaldien agendak edo herritarren informazio-beharrezanei buruzko inkestak.

2.- OPEN DATA

OPEN DATA ATARIAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko erakunde gehienek badute open data ataria, edo horrelako bat instalatzeko moduan daude, eta datu irekien mordo handia dago:

- Open Data Euskadi atarian gaur egun datu irekien 4.126 multzo daude, horietatik 186 Open Data Bilbaorenak, 370 Open Data Gipuzkoarenak, eta 121 Open Data Gasteizenak. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiaren eta Bilboko eta Gasteizko udalen datuak federatuta daude. Bizkaiko Foru Aldundiak Open Data atari berria federatzeko eskatu du, Open Data Euskaditik bere datuetarako lotura izateko.

Open Data Bilbaok HIRI ADIMENDUNEN ETA DATU IREKI-EN (OPEN DATA) UNE178301 arauaren ziurtagiria dauka.

Datuak berrerabiltzearen kultura sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak datu irekiekiko ideien eta aplikazioen lehiaketak sustatzen ari da. Informazioaren bitartekariak eta berrerabiltzaileak eta unibertsitate-ikasleak aurkezten dira lehiaketa horietara.

Bilboko Udalak, Cimubisa informatika-enpresaren bitartez, Cimubisaria izeneko saria sortu du datu irekiekin lan egiteko eta/edo datu irekiak sortzeko ideiak bilatzeko asmoz.

Informazio asko publikatzen da, baina kontsumitu, gutxi; izan ere, datu irekiak materia gordinak izaten dira, eta aditu edo akademikoentzat bakarrik balio dute. Herritarrentzat, ordea, datu horiei lotutako zerbitzuak garatu behar dira, herritarren interesetan oinarrituak, iritzia sortu eta benetako kontu-ematean eragingo dutenak, edo negozio edo ekimen sozialak sortzeko aukera emango dutenak.

Erronkak

Open Data Euskadiko datu-federazioa EAEko administrazio guztietara, txikienetara ere bai, hedatzeaz eta datu publikoak irekitzen jarraitzeaz gainera, honetan datza erronka:

- datuen etiketak normalizatzea (UNE arauak kudeaketa normalizatzen du, baina ez datuak kategorizatzeke era)
- datuekin zerbitzu publikoak sortzea eta linked data edo datu estekatuen bitartez lotzea; dagoeneko horien azpiegitura garatzen ari da Eusko Jaurlaritzak
- eskariaztertzea, herritarren, erakunde pribatuaren, berreabiltzaileen eta jarduera ekonomikoei ekiten dieten pertsonen ikuspegitik, halako moldez non datuak irekitzeko plangintzan ez baitaie administrazioen ahalbideei bakarrik jarriko arreta, baizik eta herritarren eskariari eta negoziatorako eta balio ekonomikorako aukerei ere bai

- Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek batera open data lehiaketan deialdiak egitea, datu irekiak berrerabiltzearen kultura sustatzeko
- Foru-aldundiek batera sustatzea tokiko entitateek datuak ireki ditzaten. Biscaytik fundazioa bezalako proiektuen bidez datu-baseak partekatzeko arkitektura bat dago eta, horri esker, tokiko datu jakin batzuk modu estandarizatuan irekita daude.

3.- KONTU-EMATEA

TRESNAK ETA AZPIEGITURAK

Indargunea - Posizionamendua

EAEko administrazio ia guztiek kontuak emateko tresnak dituzte, eta tresna horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- gobernu-plan edo -programen jarraipenerako aplikazioak: kasu batzuetan lehentasuna ematen zaio herri-tarrek haiek bistaratzeari, eta horrela balio dezakete legegintzaldi edo agintaldi bakoitzeko lehentasun politikoak eta erronka nagusiak ulertzeko, laburbilduta bada ere; beste batzuetan hautatu da guztiz xehakata aurkeztea helburuak, ekimenak, aurrekontuak, egutegiak eta exekuzioaren arduradunak, eta hori dena etengabe eguneratzea

- Eusko Jaurlaritza <https://programa.irekia.euskadi.eus/eu/site/home>
- Donostiako Udala <https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/programagobierno.nsf/vowebContenidosId/NT000008FE?OpenDocument&id=ma=eus&id=C339926441570&doc=D> <http://www.donostia.eus/ataria/web/gardentasuna/udalgobernua/gobernu-programa>
- Bizkaiko Foru Aldundiak 2016. urteaz geroztik espazio zehatz bat dauka honako hauek argitaratzeko: plan estrategikoa, urteko ebaluazio-txostenak, 2016az geroztik prestatzen dituen kontu-emate parte-hartzaileak. Lehenengo fasean, izan ere, 700 pertsona inguruk parte hartu zuten zuzenean lurralde osoan egin ziren 10 topaketetan. Horrez gain, proiektuak zenbat aurreratu diren eta zein egoeratan dauden jakiteko aplikazio interaktibo bat ere badu; aplikazioak parte hartzeko aukera ematen du, iruzkinak edo balorazioak eginez. Gainera, 2018an autobus ibiltari bat abian jarri du kudeaketaren kontuak emateko asmoz. Autobusa Bizkaiko eskualde guztietatik ibiliko da 5 hiletan zehar, eta denbora horretan sektoreka kontuak ematen ibiliko da (sail guztietako foru diputatuak). Barruko kudeaketarako tresna bat ere badu, proiektuak zenbat aurreratu diren jakiteko, adierazleak kalkulatzeko eta abarrerako jarraipena etengabe egin ahal izateko. Dokumentu estrategikoa eta urteko txostenak eskuratzeko espazioa: http://web.bizkaia.eus/eu/ahaldun-nagusia#56_INSTANCE_X3HAvy8MHXaN_Nahi_dugun_Bizkaia Espazio horretan aurki daiteke Ahaldun Nagusiak kontuak emateko dituen topaketa parte-hartzaileen gaineko informazioa: <http://web.bizkaia.eus/eu/unairekin-bilerak> Espazio horretan dago Bizkaian kontuak emateko jarri den autobusaren gaineko informazioa: <http://www.bizkaiaagoazen.eus/>
- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere barne-kudeaketarako garatu du, eta helburuak noraino betetzen diren argitaratzen du. Laster ekingo diote mugarrien mailako argitalpen osoagoaren faseari
- Gasteizko Udalak ere badu kontuak emateko atari bat bere gobernu-programaren barruan: <https://www.vitoria-gasteiz.org/a29-01w/plan/show/1?lang=eu&locale=eu&idioma=eu&>
- Bilboko Udala: <http://www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/eu/ambitos/planificacion-y-evaluacion/estrategia-y-planificacion/1279162268828>
- aurrekontuak: kasu honetan garatutako tresnek xedeztat dute modu erraz eta ulergarrian aurkeztea aurrekontu publikoen erabilera, gauzatze-mailak, herritarrek euren diru-sarreraren arabera aurrekontuetarako egiten duten ekarpena...
- Eusko Jaurlaritza <http://aurrekontuak.irekia.euskadi.eus/?locale=eu>
- Donostiako Udala <http://www.donostia.eus/ataria/web/aurrekontuak/inbertsio-nagusiak-2018-a>
- Bilboko Udala: <http://www.bilbao.eus/epresupuestos/ingresos.jsp?locale=eu#/~/-aurrekontua-2018>
- Bizkaiko Foru Aldundia: <http://gardentasuna.bizkaia.eus/documents/1261696/1269206/Presupuesto+Bizkaia+corregido+final+Eusk.pdf/b9ec4e2f-92bb-7e18-6a4c-14b00bd0d712>
- administrazio-egintzak: LEGEGUNEA webgune bat da, izapide elektronikoetarako TRAMITAGUNE plataformarekin lotua, eta beraren bitartez Eusko Jaurlaritzako edozein langile publikok, administrazio-prozeduraren parte gisa, argitaratu egiten ditu, gertatzen diren unean bertan, eta lotuta dauzkaten metadatuarekin batera, nahitaezko edo borondatezko txostenak, memoriak, ebazpenak, arau- proiektuak, hitzarmenak, kudeaketa-gomendioak, jarduketa planak eta abarrekoak.
- Eusko Jaurlaritza http://www.legegunea.euskadi.eus/x59-formbusa/eu/contenidos/recurso_tecnico/legesarea_comun/eu_busqueda/index.html#documentacion
- zerbitzu-gutunak: ugarituz doaz zerbitzu-gutunak dituzten EAEko administrazioak, ematen dituzten zerbitzuen kalitate-ratioak hobetzeko konpromisoen adierazgarri; eta gutun horiek kudeaketa hobetzeko

barne-dokumentuak izatetik kontuak emateko kanpo-dokumentuak izatera igaro dira

- Eusko Jaurlaritza: [Zerbitzu-gutunak](#)
- Bilboko Udala: [Bilboko Udalaren zerbitzu-gutunak](#)
- politika publikoak ebaluatzeko sistemak: ebaluazio-eginkizunaren nahitaezotasuna gero eta arautuago dago lege sektorialetan eta foru- zein toki-erakundeen gardentasunari eta gobernamentu onari buruzko arauetan. Gainera, behatokiak bezalako organo eta ekimenak gero eta gehiago erabiltzen dira ebaluaziorako: etxebizitzaren behatokia, gazteena, kulturarena, immigrazioarena, gizarte- ekonomiaarena, jazarpenari eta diskriminazioari buruzkoa, segurtasunarena, Justizia Administrazioarena..., bai eta plangintza eta ebaluaziorako zuzendaritza berariazkoak ere. Ebaluazioa erakundetu ahal izateko, ordea, sistema integratuaren beharra dago erakunde osoarentzat.
- Eusko Jaurlaritzak horrelako bat jarriko du abian GBPP 2020ren esparruan, "Plangintza estrategiko adimen-duna eta ebaluazioa" ardatzean, Lehendakaritza eta Ekonomia sailetatik eta Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzatik.
- Bizkaiko Foru Aldundiak baditu politika publikoak ebaluatzeko tresnak; horien bidez, politika publikoen eragina, prozesua eta pertzepzio soziala ebalua ditzake.

Helburu horrekin, hain zuzen, tresna jakin batzuk garatu ditu: BFAren politiken eta zerbitzuen gaineko pertzepzio sozialaren azterketak (Neurbi, BSB); sektoreka egindako azterketa kualitatiboak; lurraldearen esparru-adierazleen sistema bat, lurraldeak aurrera egiteko funtsezko alderdiak zein egoeratan dauden monitorizatzeko aukera ematen duena eta urtero argitaratzen dena (Bizkaia zifratan); Bizkaia Goazen 2030 plan estrategikoa, kontuak parte-hartze moduan ematen dituen eta planeko konpromiso bakoitzari lotuta dauden adierazleak jasotzen dituen. Bestalde, sailtako planak garatzen ari dira, sailen ekintzen jarraipena egiteko eta horiek ebaluatzeko sistema bat dute-na. Kasu honetan, alabaina, ez da publikoa.

Baina, udaletxe txikien kasuan ez daukate ezta agintaldi-planik ere, eta, beraz, oso zaila dute kontu-ematea.

Ez da erraza aurrekontuei buruzko kontu-ematea, ez dagoelako aukerarik lan espezifikoaren proiektu edo lerroei pertsonak esleitzeko (1. kapitulua), eta horrek ikusezin bihurtzen du diru-laguntzen, kontratuen edo inbertsioen mende ez dagoen ekintza publiko asko.

Erronkak

Erronkak zerikusia du kontuak emateko balio duen kudeaketa-informazio osoaren argitalpen deszentralizatua modu automatikoan eta jatorrizko datu-iturrietatik egitea ahalbidetzen duten sistemetan aurrera egitearekin; hartara, hartzen diren erabakiak ez ezik, erabakiak

hartzeko prozesuak ere ezagutu ahal izango dira, euren esku-hartzaile eta baldintzatzaileekin, bai eta prozesuok zuzentzeko hartzen diren neurriak ere.

Politika publikoen ebaluazioari dagokionez, hona erronka: erakunde bakoitzak gainerako administrazioekin elkarreragiteko sistema integratu baten beharra dago ebaluazio-eginkizuna erakundetzeko, araudi espezifikoaren bitartez, zeinetan ezarriko baitira ebaluazio-bete-beharrak (inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa, emaitzen ebaluazioa eta politiken, arauen eta ematen diren zerbitzu publikoen ebaluazioak), koordinazio- organoak eta tresna elkarreragingarriak.

4.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA

ARAUAK-PLANAK-EREDUAK

Indargunea – Posizionamendua

Dela gardentasunari, parte hartzeari eta gobernamentu onari buruzko arau orokorren bitartez (esaterako, Arabako Foru Aldundiaren [1/2017 Foru Araua](#), gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena, edo toki-erakundeen kasuan 2016ko apirilaren 14ko [Legea](#), Euskadiko toki-erakundeei buruzkoa), dela parte-hartzeari buruzko berariazko arauen bitartez (Gipuzkoako Aldundiaren uztailaren 8ko [1/2010 Foru](#)

Araua, herritarren partaidetzari buruzkoa) edo hiru hiri-uruetako udalen parte hartzeako erreforma-prozesuen bitartez (Bilbo: **Barrutien antolaketa eta hiritarren partaidetzarako arautegia (zati batean eguneratua)**; **Gas-teiz: Herritarrek Parte-hartzearen Araudia**; Donostia: Hiritar Kontsulten **Erregelamendua**), Euskal Autonomia Erkidegoan herritarrek arazo publikoetan parte har dezaten bultzatzeko behararen aitorpenaren ibilbidea egin da araudi indardunaren bitartez, hainbestearino ezen araudi aitzindari horiek berrikusten ari baitira herritarrek parte hartzeako sentitzen eta aldarrikatzen dituzten premia handiagoei doitzeko.

Arautzea bultzadaren iturri ona izan daiteke, baina herritarren parte-hartzea instituzionalizatzeko, bera bideratzeko neurriak ezean, atzeratu, zaildu eta moteldu egiten du aplikazioaren gaineko inpaktua.

Horregatik sortzen dira parte-hartzea bultzatzeko planak, dela plan orokorragoen esparruan (adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 **Plana**, besteak beste), dela berriazko planetan (hala nola Gasteizko Udalarena, Bilboko Udalarena edo Gipuzkoako Aldundiarena), lehendik dauden parte-hartze ekimenak mapatzeko eta biltzeko sistema, adibidez “Bizkai-ko parte-hartzearen mapa”. eta askoz berritzaileagoak diren ekimenak, herritarrekin batera sortzekoak.

Horietako bat dugu Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria. Hura egi-

ten 500dik gora pertsonak eta 150etik gora erakundek parte hartu zuten, urtebete iraun zuen elkarlaneko sorkuntza-prozesuan (2014an), eta Euskadirentzako ereduaren printzipioak, gauditu beharreko aurreiritziak eta jarrerak, aurrera egiteko proposamenak eta hedatzeko konpromisoak biltzen ditu. Azken horiek betetzen joan dira 2015., 2016., 2017. eta 2018. urteetan; izan ere, haien zabalkundea egin da gizartean eta Eusko Legebiltzarrean bertan, araugintzako erregulazio-proposamen bat egin da, eta ereduak proiektu pilotuak egin dira (adibidez, Berdintasunerako Legearen ebaluazio parte- hartzeakoa, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroaren prestatze parte-hartzeakoa, Biodibertsitateari eta ingurune naturalari buruzko zientzia hiritarren garapena, Osasun-arloan parte hartzeakoa EAEko estrategia prestatzea, elkarlan-zuzenbidearen sustapena, Administrazioetako langileak boluntarioekin elkarlanean jarduteko trebatzea). Ekimen horrek, bere hedapenarekin batera, Eskualde Batuen Erakundearen eta NBGPren ORU FOGAR saria jaso zuen 2016. urtean, eskualde-jardunbide egoki gisa.

Beste horrenbeste esan daiteke ETORKIZUNA ERAIKIZ ekimenari buruz. Gipuzkoako lurraldearen etorkizuna elkarlaneko “gobernantza berri” ireki batean oinarrituta definitzeko sortutako ekimena da, guztien artean 2025eko Gipuzkoa eraikitzen joateko, lurralde lehiakor eta solidario gisa. Haren lehenengo zutabea Gipuzkoa Lab da, hots, Gipuzkoa Taldean izeneko gogoeta-

esparruan identifikatutako proiektu estrategiko edo esperimentaltasunak taxutzeko eta abian jartzeko gunea. Gipuzkoa Taldean bera da bigarren zutabea, erronkei buruzko gogoeta partekatzea eta hamar urteko epean abian jarri beharreko proiektu berriak identifikatzea helburu duena. Zeharkako hiru ekimenek elikatzen dituzte bi zutabe horiek: Nazioarteko Sarea: esperientzia arrakastatsuen azterketari ekiteko eta nazioarteko foro eta sareetan sartzeko sustatzeko baliatuko den nazioarteko sarea; Ikergune deritzona, Gipuzkoan kokatutako lau unibertsitateak biltzen dituen, foro erakundeak ezagutzaren sistemarekin duen lotura sendotzeko; eta, azkenik, Gizarteratze Prozesua, Gipuzkoako lurraldearen erronka nagusiak eta, halaber, Gipuzkoako gizartearekin batera lortutako emaitzak esperientziak eztabaidatzeko, hedatzeko eta gizarteratzeko.

Erronkak

Erakunde guztientzako oinarritzako araudirik ezean, eta toki-administrazioek arauketan ahalegina eginda —aitzindariak izan baitira, nahiz eta gaur egun haien araudiek berrikuspenaren beharra duten—, erronka bat azaleratzen da, alegia, EAEko lege bat egin beharra, gutxienez ere eskubideak homogeneizatzeko dituen, betiere erakunde-maila bakoitzak bere burua antolatzearen ahalmena errespetatuz, eta toki-administrazio guztientzat erreferentziako toki-erregelamenduaren ereduak egin beharra; horretan ari da dagoeneko Euskadiko Udalen Elkarte (EUEDEL), eta lan horrek balio

handia ekarriko luke gobernantza-eredu egonkorak hedatzeko.

PARTE HARTZEKO ORGANOAK

Indargunea – Posizionamendua

Erakunde guztiek dituzte aholku emateko eta parte hartzeko hainbat organo, orokorrak edo sektorialak, horietako asko lege-mailako arauen bidez sortuak. Batzuk guztiz finkatuta daude, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea edo Lan Harremanen Kontseilua, esaterako, eta beste batzuk nabarmendu beharrekoak dira oraintsu sortuak direlako eta elkar-laneko ikaskuntzarako eta gobernamentu onaren ildoan erabakiak hartzen laguntzeko gune benetan bihurtzeko aukerak dituztelako: Tokiko Politiken Euskal Kontseilua, hiru erakunde-mailek osatua, edo Udalen Kontseilua eta Gizarte Kontseilua, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatua.

Alabaina, organo horietara, askotan ordezkariak berek jotzen dute, eta organo horien funtzionamendua administratiboegia da, izapide hutsezkoa, astuna eta lankidetzak gutzikoa. Handiagoa da parte-hartze sentsazioa, benetako parte-hartzea baino.

Organo formal horiez gain, EAEko erakundeek gero eta sarriago jotzen dute parte hartzeko gune informaletara euren politikak, arauak edo programa nahiz zerbitzu publikoak erkatu eta taxutzeko. Herritarren gogoetarako

espazioen bila dabilta, esperimintatzeko eta arazo publikoetan erantzukide izateko.

Era berean, gero eta gehiago parte hartzen da eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren sareetan, EAE mailan. Esate baterako, Innobasque irabazteko asmorik gabeko erakundearen misioa da Euskadin berrikuntza sustatzea, berrikuntza soziala eta gobernantza-eredu berriak barne; Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zibilak, hainbat enpresa eta administrazioak eta bizitza sozialak, ekonomikoko eta kulturalako pertsona bereziki adierazgarriak osatzen dute (1.000 bazkide baino gehiago ditu); Euskadin oso hedatua dago eta Euskadiren etorkizuna eraikitzeko proiektu berritzaile eta esperimentalak bultzatzeko baliabide garrantzitsua da.

EAEko administrazioek nazioarteko lankidetzaren sareetan ere parte hartzen dute euren politiken arlo guztietan. Horien artean honako hauek nabarmendu daitezke: Eskualde Batuen Erakundea (ORU/FOGAR), non Euskadik 2017an bigarren lehendakariordetza eduki baitu —Marokoko Rabat-Zalé-Zemour eskualdeko presidente Abdessamad Sekkal lehendakari zela—; eta UCLG (United Cities and Local Governments) sarea, Ekimen horretako parte-hartzaileak dira Bilboko Udala, hiri digitalen eta ezagutzaren batzordeko buru dela, eta Gipuzkoako Aldundia, gaur egun tokiko gobernuari hiri-garapenean ustelkeria prebenitzen eta horren aurka borrokatzen laguntzen dien Nazio Batuen-Habitaten (Global-Local Accountability Support System) proiektuarekin, ...

Erronkak

Hala ere, aholku emateko eta parte hartzeko organo asko egon arren (40tik gora, Eusko Jaurlaritzaren kasuan), horrek ez du bermatzen arazo publikoen gobernantza eraginkorra, eta komeni da haien benetako jardura, osaera, eginkizunak eta kudeaketa-eredua sakonean aztertzeko denbora hartzea. Beraz, hau da arlo honetako erronka:

- Organo horien jarduna aztertu behar da euren arrazionalizazioari eta taxuera eraginkorragoari begira, eta indartu egin behar dira ikuspegi anitzetik lan egiten dutenak eta euren lankidetzaren bitartez kudeaketa publikoari benetan balioa gehitzen diotenak
- Lan ireki eta gardenagoa egin ahal izateko eta elkar-lana areagotu ahal izateko tresnak eman behar zaizkie
- Euskadin dauden organo guztiak mapatu behar dira, lurralde-maila guztietakoak barruan hartuz, herritarren aurreko gardentasuna eta irisgarritasuna helburu.

Beste alde batetik, gobernantza-sistema berriek organo formal horien egokitasunari eta onurari gehitzen diete beste sistema informalago batzuen bultzada. Esan genezake azken horiek parte hartzeko gune malgu baina egonkorak direla, eta halakoei ekin behar genieke. Helburu ezberdinetako foru-formulak esperimintatzea: aldi baterakoak edo egonkorak; sortzaileak, ebaluatzaileak, kontrastekoak eta kontsultakoak; presentzialak eta birtualak; parte-hartze librekoak edo zozketa bidezkoak, eta abar.

Euskadi Gobernu Irekirako Aliantzan parte hartzeko hautagai izan da, hain zuzen ere, EAEko Jaurlaritzaren eta foru- zein toki-gobernuen konpromiso zehatzak bideratu nahi direlako gardentasuna sustatzeko, herritarrek arazo publikoetan gehiago parte hartzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko eta gobernantza sendotu dezaketen teknologia berriak baliatzeko.

PARTE HARTZEKO PROZESUAK

Indargunea – Posizionamendua

Azken urteotan administrazio instituzionaleko maila guzti-etan parte hartzeko hainbat eta hainbat prozesu izan dira Euskadin. Honako hauek, bereziki, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriak definitzen dituen hiru dimentsioetan herritarrek parte hartzeko prozesuak sustatzea bideragarria eta ona dela erakusteko mugariak dira, benetako eragina dutelako, ereduak direlako eta errepika daitezkeelako:

- Parte-hartze politikoa, politika publikoen diseinurako, plangintzarako, monitorizaziorako eta ebaluaziorako (zer egin eta zertarako).

Hona adibide batzuk:

- Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko [Liburu Zuria](#) egitea, herritarrek arazo publikoetan gehiago parte hartuko duten Euskadi hori eraikitzeke abiapuntu gisa

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen [Berrikuspena](#) egiteko prozesua
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko [4/2005 Legea](#)) ebaluazio parte-hartzeakoa
- EAEko toki-administrazioak garatzen ari diren aurrekontu parte-hartzeak, legeak agindutakoak. Horiek inplikazio handiagoa dute hirigintzako eta azpiegituretako obretako jardueretan
- [Parte-hartze prozesua](#), Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Nagusiaren (HAPN) berrikuspenari buruz.
- [Parte-hartze prozesua](#), Bilboko hiri mugikortasun jasangarriarako plana (HMJP) garatzeari buruz.
- ...
- Zerbitzuen diseinurako parte-hartzea, eraginkortasunari arreta gehiago jartzen dion eta izaera operatiboa duen dimentsio batean, zerbitzu publikoen prestazioa hobetzeko. Horren adibidea da Eusko Jaurlaritzak familiei laguntzeko duen programaren birdiseinua.
- Elkarlaneko parte-hartzea, alegia, gizarte zibiletik balio publikoa sortzeko azaltzen diren ekimenak eta, halaber, beste ekimen batzuk, arazo publikoak batera kudeatzeko erantzukidetzaren inguruneak garatzen dituztenak. Hala gertatzen da, adibidez, honako hauekin:
- Eusko Jaurlaritzaren [Elkarlan sariak](#), EAEko gizarte zibila sortutako balio publikoa aintzatesteko banatzen

direnak. Sari horien deialdiak egin dira 2015ean, 2016an eta 2017an, eta 10 sari eman dira.

- [Elkarlan zuzenbidearen sustapena](#). Gataztak ebazteko aukerako metodoa da, berritzailea, elkarlanean jardutekoa, lagunartekoa; baina, batez ere, babes juridikoa eta justizia printzipio eta balio jakin batzuetatik abiatuta ulertzeko modu berria da, Euskadiko Elkarlan Zuzenbidea Garatzeko Elkartearantzako laguntzaren bitartez.
- Biodibertsitateari eta ingurune naturalari buruzko [zientzia hiritarra garatzea](#), Eusko Jaurlaritzak Bid Rex Interreg Europe sarean parte hartuta.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Gazte Begirada proiektua, DDCekin (Danish Design Center) batera egindakoa, Busturialdea eskualderako etorkizuneko estrategia bat diseinatzeko. Belaunaldien arteko proiektua: gazteak ditu buru eta biztanleen zahartzea aukera moduan ikusten da.
- Gazte Saregileak proiektua: gazte multzo batek osatzen du eta haien helburua da aukerei balio handiagoa ematea, lurraldeko eragilearen artean loturak sortzea eta batzeko eta gauzak adosteko espazioak prestatzea.
- Gizartekohirugarren sektorearekin lankidetzarako espazioak sortzea Bizkaian: Elkarriketa Zibilerako Mahaia abian jarrita, desgaitasuna duten pertsonen eta haien

senideen parte-hartzerako eta bizi-kalitaterako plana elkarrekin prestatuz, edo Bizkaiko adinekoen kontseiluan bertan. Azken hori ez da organo bat soilik, adinekoen esparruan politika eta zerbitzu zehatzak sortzeko tresna moduan dago prestatuta.

Askotan, zail egiten da herritarrek parte hartzea erakundeek deitzen dituzten kontsulta- eta -kontraste-prozesuetan; izan ere, herritarrek beren itxaropenak zapuztuta ikusten dituzte, eta erakundeekiko konfiantza galtzen dute, dela erakundeek herritarren proposamenekin egiten duten erabileragatik, dela ez dituztelako ondo ulertzen gai administratiboak, dela ez dutelako prozesuetan parte hartzeko esperientziarik.

Erronkak

Parte hartzeko prozesuak eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa da administrazioek eta herritarrek zenbait jarrera eta aurreiritzi gainditzea, prozesuok kudeatzeko tresna eta azpiegitura egokiak erabiltzea, beste esparru edo lurralde batzuetara hedatzeko eredu izango diren saiakuntzak eta praktika onak egitea; eta, batez ere, administrazio publiko guztien agenda politikoan sartu behar dira prozesu horiek. Horregatik, ahalegina egiten jarraitu behar da gizartea sentikortzen, elkarlanerako trebetasunak lantzen, ereduak eta gida praktikoak garatzen eta gobernantza onerako plataforma birtual eta topagune malgu eta egonkorak taxutzen.

Prozesu bakoitza helburu bati lotu behar zaio; eta

horren arabera zehaztu: zer kolektibo mobilizatu behar diren; nola hel daitekeen horiengana eta nola egokitu informazioa hartzailearen profilaren arabera; zer itxaropen sortu, errealistak izan daitezen kontu eginez; zer metodo, egokiak eta erakargarriak, erabili elkarrekin sortzeko, kontsultatzeko, kontrastatzeko eta ebaluatzeko; eta, azkenik, emaitzak itzuli behar dira, eta elkarrekin sortutako proposamenetan oinarrituta hartutako erabakiak ere bai.

Parte-hartzeko aurrekontuak direla eta, adibidez, gogoeta egin behar da parte hartzeko benetako tresna gisa duten ahalmenari buruz; agian erabilgarri izan daitezkeen herritarrek sumatzen dituzten eskariak identifikatzeko edo baliabideen esleipenean lehentasunak ezartzeko... eraginkortasunez kudeatzen badira haien hedapena, proposamenak prestatzeko pizgarriak, eztabaida kolektiboa, balorazio-irizpide gardenak eta adostasunerako nahiz erabakiak hartzeko moduak.

PARTE HARTZEKO TRESNAK ETA PLATAFORMAK

Indargunea – Posizionamendua

Erakundeek hainbat plataforma eta tresna baliagarri garatu dituzte kudeaketa publikoan parte hartzearen kulturean aurrera egiteko. Horien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

PLATAFORMAK

- Parte hartzeko lineako plataforma (DonostiaKIN), elkarteen ATARIA (ElkarteKIN), PH Gunea (elkar-teentzako gune bat haien arteko harremanetarako).
- Herritarrek parte hartzeko Bilboko Udalaren ataria (2018ko udan argitaratzea aurreikusi da).
- “Bilbo Hobetuz” izeneko herritarrek mugikorraren bidez eta denbora errealean parte hartzeko plataforma da. Gorabeherak, iradokizunak eta hobekuntzak jasotzen ditu hainbat gairen inguruan (ur-sareak, saneamendua, argiak, garbiketa eta hondakinen kudeaketa, eraztun berdea, parke eta lorategiak, hiri-tresneria, bideak, bizikletak eta espazio publikoa).
- Etxebizitza deritzo Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren plataforma berriari. Beraren helburua da herritarrekin, sektoreko profesionalekin eta etxebizitza-arloa interesatzen zaien hedabideekin komunikatzeko bide bat irekita edukitzea. Gainera, gune pribatu bat dute sektoreko profesionalentzat, eta bertan eduki espezializatua aurki dezakete.
- I• rekia. Irekia zuzeneko komunikaziorako bide bat da, herritarren eta EAEko Administrazioaren artekoa: 1) Agenda: goi- kargudunen eta sailen jardueren agenda denbora errealean eguneratzen da; 2) Berriak: Jaurkitzearen jardueraren berri; 3) Goi- kargudunen fitxak: aurrekontuaren magnitudeak, giza baliabide-

ak zuzendaritzaka/arloka, eta abar; 4) Parte-hartzea: Jaurlaritzaren proposamenak eta herritarren eskaerak; 5) Topaketak: goi-kargudunekiko topaketa digitalak, zuzenean transmititzen eta Jaurlaritzaren sare sozialetatik partekatzen direnak; 6) Gizarte-sareak: Jaurlaritzaren kontuen kudeaketa eta koordinazioa; 7) Entzute aktiboa: Irekia plataformaren barruko softwarea, Twitterren argitaratutako edukiak jasotzen dituenak, gaikako gako-hitzen hautaketatik abiatuta.

- Herritarrek parte hartzeko Gasteizko Udalaren webgunea: Gasteiz Hobetuz, parte-hartzezkotik aurrekontuen programa; Herritarrek Parte Hartzeko Plana; [parte hartzeko prozesuak](#)_Gasteizen; Herritartasunerako Eskola Irekiaren (HEI) web-orria; [VGarbi](#), parte hartzeko doako tresna, garbiketa publikoaren eta hiri-hondakinen kudeaketaren inguruko gorabeherak WhatsApp eta Telegram bidez identifikatu eta kudeatzekoa...
- Bizkaiko Foru Aldundiaren herritarren parte-hartzerako espazioa.
- BiscayTIK fundazioaren Udala Zabaltzen proiektuak parte-hartzeko aukera ematen duen gobernu irekiaren plataforma bat eskaintzen die proiektuari atxikitzen zaion udalei. Hau da, udalen % 75i.

- TRESNAK

- Gipuzkoako Herritartasun Eskolaren proiektu pilotua,

gipuzkoarren artean herritarren parte-hartzearen arloko ikaskuntza eta kultura sustatzea xede duena.

- Herritarren parte-hartzearen Arabako Foru Aldundiko erregistroa.
- Gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Foru Arauaren eta Arabako Aldundiko Gobernu Irekiko Atariaren gida erraza
- Bizkaitarren Sarea. Bizkaiko lurraldeko pertsonak eta entitateek osatutako sare bat da. Parte hartu nahi dute eta gobernu irekiari eta lurraldean parte hartze-ari buruzko informazioa jaso nahi dute. Guztira 8.000 pertsonak baino gehiagok eman dute izena.
- Laia Eskola - Arabako Emakumeon Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskolaren sorrera
- Gasteizko Udalaren herritarrentzako eskola irekia.
- Parte-hartzearen bidaia-gida (arakatzeko, hurbiltzeko eta ibilbidea egiteko 100 orientazio); Parte-hartzearen korapiloak (elkarlaneko gogoeta bat, 26 udalerritan izandako esperientziatik abiatuta, arduradun politiko eta teknikoei arazo horiek aurreikusten eta saihesten laguntzeko, korapilatu eta parte-hartze prozesua trahatu baino lehen; Administrazio publikoetako parte-hartze prozesuak ebaluatzeko ereduak; Osasun-arloan parte hartzeko gida; Gobernu Irekiari buruzko lineako ikastaroa.

Erronkak

Parte hartzeko plataformak eta parte-hartze prozesuak hobeto kudeatzeko tresnak hedatu eta orokortu egin behar dira, herritarrek, oro har, eta politikaren esparru bakoitzean espezializatutako teknikariek, bereziki, sarriago erabil ditzaten eta ohiko eta berezko zeregin bihurtzeko eguneroko kudeaketa publikoan. Horregatik, ahalgaria egiten jarraitu behar da gizartea sentikortzen, elkarlanerako trebetasunak lantzen, ereduak eta gida praktikoa garatzen eta gobernantza onerako plataforma birtual eta topagune malgu eta egonkorak taxutzen.

5.- INTEGRITATEA

ARAUAK-EREDUAK

Indargunea – Posizionamendua

Duela urte batzuetatik hona EAEko erakundeek antzeko mekanismoak eta tresnak erabiltzen dituzte euren erakunde-integritaterako sisteman.

Ekainaren 26ko 1/2014 [Legeak](#) (kargu publikodunen jokatutako kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituenak) kargu publikodunaren kontzeptua bera zabaltzen du, bertan arautzen den kontrol- eta berme-sisteman Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan zeregin publikoak betetzen dituzten ahalik eta kargudun gehienak sartzeko eta interes orokorraren lehentasuna ziurtatzen

duten printzipioak, betebeharrak, bermeak prozedurak eta zehapenak arautzeko. Hainbat erakundetako kargudunei eta zuzendaritzako kideei aplikatzen zaie (Arartekoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua eta beste erakunde independente batzuk, Eusko Legebiltzarra), bai eta zuzendariaren pareko edo gora-goko maila duten behin-behineko langileei ere.

Gainera, EAEko administrazio guztiek kargudun publikoen eta organoen jokaera-kode etikoak onartu dituzte jakobidea kontrolatzeko, eta barruko zein kanpoko agenteek osatutako etika publikoko batzordeak eratu dira. Batzorde horiei dagokie kontsultak jaso eta oharrak eta iradokizunak argitaratzea, bai eta kode etikoan ezarritako aurreikuspenak egokitzeko proposamenak gauzatzeko prozedura ere.

Gipuzkoako Aldundiak Zuzentasun Institutuzionaleko **Sistema** konplexu bat dauka, honako hauetan oinarritua: Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea eta kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jakobide Kodea eta Zuzentasun Institutuzionaleko esparrua.

Bizkaiko Foru Aldundiak interesen arteko gatazkari eta bateraezintasunari buruzko foru arauaren proiektu bat onartu du. Bizkaiko Batzar Nagusiek onartzen dutenean erakunde horren osotasunaren oinarria izango da. Hori gorabehera, foru-administrazioak baditu indarreko

araudian aurreikusten diren beste bitarteko batzuk ere, besteak beste: Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoan sartzan diren entitateetako goi-karguak izendatzeko jardura protokolo bat, eta etikarekin eta gobernu onarekin lotutako konpromiso bat, Bizkaiko Foru Aldundiko kargu publiko guztiek hartzen dutena kargua onartzean.

Bestalde, foru sozietateen integritate, betetze-maila eta gobernu onaren esparruak zabaltze aldera, alderdi horiek guztiak betetzeko programak ari dira ezartzen.

Gasteizko Udaletxeak **Kode** etiko bat dauka udaletxeako langile guztientzat.

Erronkak

Erakundeen integritaterako sistemetan erabiltzen diren mekanismo horien osagarri gisa, eta beste herrialde batzuetan garatu diren ekimenen ildoari jarraituz, komenigarria izan liteke azterlanen bat egitea, integritaterako eta kudeaketa hobetzeko sistema indartuko lukeen alerta-sistema bat antolatzearen onurak aztertze aldera; sistema horrek arrisku-eremuak identifikatuko lituzke eta bere ezarpenetarako neurriak taxutuko lituzke.

Ikuspuntu prebentiboa da eraginkorrena; ikuspuntu horrek, gainera, kultur demokratiko ona bultzatzen du.

6.- KULTURA DIGITALA

Indargunea – Posizionamendua

Urriaren 1eko 39/2015 Legea (administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena) eta urriaren 1eko 40/2015 Legea (sektore publikoaren araubide juridikoarena) indarrean jarri eta gero azkartu egin da EAEko administrazioen barne- zein kanpo-prozedurak digitalizatzeko prozesua. Administrazioak prozesu horretan ari-tu dira azken 15 urteetan. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko bere kanpo-prozeduren % 70 bihurtu ditu prozedura elektronikoko, eta gainerako administrazioak aurrera egiten ari dira euren zerbitzu eta prozeduren digitalizazioan.

Beste alde batetik, gure hiri eta herrietako bizitzatik datorren informazioaren bilketaren bitartez zerbitzuak sortzeko ahalbidetari estu lotuta, EAEko hiru hiriburuak smart city edo hiri adimendunaren eredua garatzen ari dira, jasangarritasunean oinarritua, erakundeen, enpresen eta biztanleen oinarritzko beharrezanez egokiro erantzuteko gai dena, bai ekonomiaren aldetik, bai alderdi operatibo eta sozialetan zein ingurumenaren arloan. Kontzeptu hori komunitate digitalaren kontzeptuari lotzen zaio; azken horrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera trinkoa du oinarri; izan ere, teknologia horiek erabiltzen dira kalitate eta berotasun handiko zerbitzu publikoak emateko, segurtasunerako, produktibitateko, lehiakortasunerako, berrikuntzarako, ekintzailatzarako, parte hartzeko, prestakuntzarako eta

gaikuntzarako. Hala, baditugu udal WIFI sarea bezalako ekimenak; sare horrek Internetarako sarbide libre, unibertsal eta doakoa ematen die herritarrei, administrazio elektronikoaren esparru gero eta zabalagoen gaitasun telematikoak erabiltzea ahalbidetzen du, denbora errealeko datu-bilketarako balio du, udalak hobeto ezagutu dezan hiria, eta udal-dispositibo konektatuen hedapenerako oinarri bihurtu daiteke.

Bestalde, azpimarragarria da, halaber, erakundeek web-guneetarako irisgarritasun-ekimenen multzoa. Berezi ki, Eusko Jaurlaritzaren gobernu irekiko atariak (Irekia) bideoen azpitolu automatikoak, testu-entzuketak eta irakurtzen laguntzeko web-tresnak ditu; eta irakurtzeko errazaren bidez albisteak ikusteko eta parte hartzeko egokituta dago.

Erronkak

Orain arte, e-administrazioaren garapenean ahalegin handiagoa egin da administrazio-prozedura guztiak digitalizatzeko, kudeaketa elektronikoa ahalbidetu nahian, elkarrekintza administratibo horiek modu bakarrean herritarrekin integartzeko baino. Horregatik, Herritarren Karpeta garatzen ari da Eusko Jaurlaritza, edozein herritarrek bistaratu ahal izan ditzan EAEko edo Espainiako administrazioekin izan dituen prozedurak eta bideratzen ari direnak. Proiektu konplexua da. Izan ere, oraingoaren (Nire kudeaketak) egokitzapen teknologikoa egin behar da, multientitate bihurtu behar da, gaine-

rako administrazioek helburu horrekin bat egiten badute (Estatuko Administrazioaren Herritarren Karpetarekiko elkarreragingarritasuna berehala ezarriko da), eta identifikazio-sistema komunaren (Giltza) bidezko sarrera duten gailu mugikorretarako moldatu behar da.

Beste alde batetik, intereseko helburua da aurrera egitea administrazioek partekatutako datuen azpiegiturarantz, kudeaketa publikoa hobetzen eta balio publiko partekatua sortzen lagunduko baitu, honako hauei dagokienez:

- Smart city egituraren eta sarearen diseinua informazio-iturri gisa: informazio igarlea, sentsoreen informazioa... azterketa igarlerako elementuak, azterketa mota hori bereziki erabilgarria baita auzoetan edo zona jakinetan proiektuak garatzeko.
- Baliabideak gehitzeko eta kudeaketa publikoa hobetzeko aukera.
- Open datatik big datarako iraganbidea: datuak bildu, deszifratu, monitorizatu... eta aldi berean teknologia berriak garatu, erabilera publiko-pribatuko aplikazio irekiak sortzeko (adibidez, aparkatzeko lekuak, trafikoko urriagoko ibilbideak edo epidemiologia bistaratzea).

kudeaketa publiko eraginkorraren bidean aurrera egiteko, eta ildo horretan hortxe dugu Euskalitz, 2018an 25 urte beteko dituen erakundea, fundazio gisa eratua, Eusko Jaurlaritzaren babespean, EAEko erakundeetan kudeaketa aurreratua sustatzeko, lehiakorrak izaten laguntzeko, eta nazioartean erreferente eta ospetsu izateko; edo Q-epea delakoa, kudeaketa aurreratuaren alde diharduten Euskal Autonomia Erkidegoko hogeita hamar erakunde publikok osatutako sarea.

Haien laguntzaz, bikaintasun-eredua erakunde publikoen beharizanei eta ezaugarriei egokitu zaie, eta kudeaketa aurreraturako kudeaketa- elementuak ezarri dira hainbat arlotan (estrategia, zerbitzuak, pertsonak, berrikuntza, gizartea eta emaitzak). Ekintzara bideratutako prestakuntza-proiektu baten bitartez gauzatzen da ezarpena. Prozesu horretan administrazio bakoitzeko sailak ereduarekin lerrotatzen dira, eta euren ezarpen-planak ezartzen dituzte, aholkularitza jasota, kudeaketa hobetzeko proiektuak egiteko, sailetan identifikatutako proiektuak, betiere. Ereduak [AURRERABIDE](#) du izena, eta Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian ezarrita dago.

Erronkak

Kudeaketa publiko aurreratuaren arloko jardunbide egokiak orokortzean datza erronka.

7.- KUDEAKETA PUBLIKO AURRERATUA

Indargunea – Posizionamendua

EAEko administrazio publikoek konpromisoa hartu dute

8.- HERRITARRENTZAKO ARRETA-ZERBITZUAK

Indargunea – Posizionamendua

EAEko administrazio publikoek herritarren arreta bate-ratuko zerbitzua ezarrita daukate edo ezartzeko prozesu-an dihardute euren erakundeetako edo Jaurlaritzako jarduera eta zerbitzu guztietan, ezaugarri hauek dituen ereduari jarraituz:

- Pertsonen pertsonentzat egina
- Horizontala eta osoa, sailen eta administrazio-unitateen elkarrekintza guztiak bideratzen dituena
- Kanal anitzekoa: elektronikoa, telefono bidezkoa, aurrez aurrekoa
- Proaktiboa

Erronkak

Hona erronka: zerbitzu integratuaren ezarpen osoa lortu behar da, sarrerako ate hurbila eta zabala izan dadin herritar guztientzat, haien beharrianen eta eskarien ar-bera.

EUSKAL ERAKUNDE BAKOITZEAN GARDENTASUNAREN KUDEAKETARAKO EZARRITAKO MODELO ANTOLATZAILEA

Bizkaiko Foru Aldundia	Eredu deszentralizatua. Profil teknikoko hiru pertsona, lanpostu berri banatan, Gardentasun unitatean. Unitateak berak ere lanean dihardu integritate, compliance, kontratazio, kalitate edota analitika gaietan. Pertsonen gain, baliabide ekonomikoak ere bideratzen ari dira. Esparru hori bi zuzendaritzaren artean banatuta dago: Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzaren eta Behatokiaren Zuzendaritzaren artean.
Bilboko Udala	Herritarrentzako Arreta eta Barrutien Sailaren eskumenekoa da gardentasuna. Baina Gobernu Batzordeak sail horretatik gidatutako zuzendaritza-talde bat sortzea onartu zuen, herritarrentzako arreta, kalitate, Alkatetza eta web arloetako pertsonen osatua. Arauen kontrola, jarraipena eta horrelako eginkizunak ditu. Ez du gardentasunerako langile propiorik, baina harreman-arlo bakoitzeko pertsona bat dago, ezeren beharra izanez gero. Ez dago inola ere izendatuta; unitatea da arduraduna esleitzen duena.
Gasteizko Udala	Herritarrentzako arreta eta gardentasuna Alkatetzako zerbitzua da. Bereiziki ahalegintzen dira kultura-aldaketa eragiten, kode etikoa lantzen sail guztietako funtzionarioekin batera, katalogoa definitzen, hura ere irekia... Guztiz kezkatzen ditu antolaketa-kulturak, eragozpenak zenbaitetan barrukoak izaten dire-lako. Zentralizatu egiten dute (irizpide homogeenak emanez, besteak beste) zertarako-eta deszentralizatzeko. Badago berriazko unitate bat, baina ez dute langilerik kontratatatu, eta idazkaritza teknikoekin funtzionatzen du (adibidez, kode etikoa EHUrekin)
Arabako Foru Aldundia	Badira Kabineteko Zuzendaritzari atxikitako bi lanpostu berri gardentasun-araua aplikatzea eginkizun bakarra dutenak. Eraikitzen ari diren lanpostuak dira, eta oraingoz atarian ari dira lanean. Halaber, sailtako bakoitzean, egiturari buruzko dekretuaren bidez, plangintzan, ebaluazioan, gardentasunean eta horrelakoetan solaskidetzaren eta trazioaren ardura hartu behar duten pertsonak izendatu dira. Eredu mistoa dute: arduradun espezifikak + unitateetako bakoitzeko pertsonak.
Gipuzkoako Foru Aldundia	Modernizazioaren eta sistemen arloan, Modernizazio Zerbitzuari dagokio gardentasun-eginkizuna. Hamaika pertsona dira modernizazioan eta bik dihardute gardentasunaren eta datu irekien alorrean. Kontaktu bat dute departamentu bakoitzean, informazioa bidaltzen duena; gero eurek argitaratu egiten dute. Organoei dagokienez, osoagoa da: badute zaintza-organo bat gardentasunerako, gehi etika-batzorde bat, zeinean zehazten baita Aldundiarentzako eta enpresentzako nahitaezkotasun-printzipioa.

**Eusko
Jaurlaritza**

Badituzte Gobernu Irekiaren Zuzendaritza eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza. Gobernu Irekiaren Zuzendaritza arduratzen da parte hartzeko plataformez, eta Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren ardurapean daude webeko presentzia, Administrazioaren sinplifikazioa, herritarrentzako arreta eta berrikuntza. Berrikuntzan, bada berrikuntza publikoko ardatz bat, eta hain zuzen ere berrikuntza publikoan lantzen da gardentasuna. Bi lanpostu berri sortu dira. Departamentuarteko batzorde batek, halaber, gidalerro orokorrak, homogeneizazioa eta abarrekoak finkatzen ditu gobernantzaren, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen alorrean. Ez da departamentuetako bakoitzean unitaterik sortu, baina badago laguntza teknikoa departamentu bakoitzean. Betetzeari buruzko txostena aurkezten da urtero, eta erakunde publiko guztiek eman behar dute informazioa, departamentuen bidez. Bide zentralizatu bat partekatzen dute, eta gero hedatu eta deribatu egiten da. Etikaren atalean, etika publikoko batzorde bat arduratzen da kontsultei erantzuteaz eta etika-kodearen ez-betetzei buruzko txostenak egiteaz.

2. ERANSKINA: GOBERNU IREKIA, EUSKADI. Hautagaitzako kide diren erakundeek ekimen nabarmenak

ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	OSOTASUNA
EUSKO JAURLARITZA	Demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria Herritarrek parte hartzeko jardunbide egokiak Etxebizitzaren Euskal Behatokia – parte hartzeko plataforma Elkartan sariak – gizarte zibilak sustatzen dituen eta balio publikoa sortzen duten proiektuen aintzatespena	Gardentasunaren Ataria - Gardena Irekia – Gobernu Irekiaren Plata-forma	Open Data_Euskadi	Gobernu-programaren jarraipena Aurrekontu publikoen bistaratzea Administrazio-egintza guztien bistaratzea (Legegunea - justiziaren arloan esanguratsuak diren agirien espazioa) Gazteen Euskal Behatokia; immigrazioarena; jazarpen eta diskriminazioarena; segurtasunarena; kulturararena; ekonomia sozialarena; EAEko soziometroak	Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 plana Kudeaketa publiko aurreratua - Aurrerabide	1/2014 Legea, ekainaren 26koa, kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen Etika Publikoaren Euskal Batordea
ARABAKO FORU ALDUNDIA	Gobernu Irekiaren Ataria Araba Irekia - Parte-hartzea 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri Agora - Herritarrek parte hartzeko proiektua Laia Eskola - Arabako Emakumeon Jabekuntzarako eta Berdintasunerako Eskola	Araba Irekia – Gobernu irekiaren ataria 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri Gardentasunaren Foru Kontseilua Informazio publikoa eskuratzeko sistema 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri Informazio publikoaren katalogoa 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri Gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Foru Arauari buruzko gida erraza 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri	Open Data Araba Eraikuntza-fasean – 2018ko uztailetik aurrera erabilgarri	2015-2017 agintaldiko plan estrategikoaren jarraipena Arabako Foru Aldundiko ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa 2018ko martxoaren 13tik aurrera eskuragarri	Arabako Foru Aldundiaren 2015-2019 agintaldirako plan estrategikoa 1/2017 Foru Araua, otsailaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena	Kargu publikodunen gobernu onerako eta etikarako kodea eta Etika Publikoaren Batordea Arabako Lurralde Historikoko Foru Kargu Publikoaren jarduna arautzen duen foru-arauaren proiektua Prestatze- fasean; herritarren partaidetza-fasea hasita (2018-02-22).

ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	OSOTASUNA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Parte hartzeko ataria eta parte-hartzearen “Mapa” Elkarrizketa Zibilerako Mahaia Gazte Begirada - Gazteekin eskualdearen etorkizuna diseinatzeko, Danish Design Center-ekin lankidetzan	Gardentasunaren Ataria Biscaytik – Udala Zabaltzen Gardentasunaren gaineko Erreklamazioen Batzordea Gardentasunaren Foru Arauaren irakurketa erraza Datu pertsonalak babestearen arloan eskubideen erabilera bermatzeko web eremua: Datuak babesteko ordezkaria (DBO)	Open Data Bizkaian GeoBizkaia Elkarreragingarritasuna	BG2030 agiri estrategikoaren jarraipena eta barne-ebaluazioa Jarraipen-txostenen argitalpena webgunean Plan estrategikoaren jarraipena egiteko eta bertan online parte hartzeko tresna interaktiboa Autobus ibiltaria lurralde osoan kontu publikoen berri emateko. 350 proiektu eta ekimeni baino gehiagori buruzko kontuak ematen dira. Bizkaia Goazen 2030 plana ere badu. Plan estrategikoaren kontuak emateko aurrez aurreko prozesua (lehen zikloa eta bigarren zikloa)	BG2030ren Gobernu Estrategia Gardentasunaren Foru Araua Gardentasunaren Foru Plana 2017-19 eta Memoriak Gobernu/lurralde irekiaren estratgia	Ondasun-aitorpenak, bateragarritasunak eta dekalogo etikoa Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoan dauden entitateetan goi-zuzendaritzako kideak izendatzeko protokoloa Proyecto de Norma Foral de Conflictos de interés e incompatibilidades
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Herritarren Partaidetzarako Ataria Herritarren Partaidetzarako Erakundearteko Espazioa. GAO - egoitza Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua Gipuzkoa Sarean: maila anitzeko eskualde-garapenaren laborategia Hirikilabs – Kultura digitalaren eta teknologiaren laborategia	Gardentasunaren Atari Instituzionala	Gipuzkoa Irekia – Gipuzkoako Gardentasunaren eta Datu Irekien Ataria	Aurrekontuen betetze-mailaren jarraipena Kudeaketa Plan Estrategikoaren Jarraipena Aurreko ekitaldietako kontu-ematea	Kudeaketa Plan Estrategikoa 2015-2019 Etorkizuna Eraikiz Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Araua Gardentasunari eta Informazio Publikoari Eskuratzeari buruzko Foru Araua Parte hartzeko programa	Zuzentasun Instituzionalerako Sistema Erakundearen Etika Batzordea

ERAKUNDEA	PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA	GARDENTASUNA	DATU IREKIAK	KONTU-EMATEA	ARAUDIA ETA PLANAK	OSOTASUNA
BILBOKO UDALA	Parte-hartze bidezko aurrekontuak Herritarrek parte hartzea planak egiteko orduan Udal-kontseiluak eta parte hartzeko beste organo batzuk Ume eta Nerabeen Kontseilua Auzokide Plana – gure auzoetako hobekuntza-proiektuen planifikazioa, garapena eta exekuzioa adosteko funtsezko tresna	Gardentasunaren Ataria Irakurketa Errazeko Plana	Bilbao Open Data	Zerbitzu-karta Udalaren datu ekonomiko-finantzarioak Aurrekontuen bistaratze grafikoa Bilboko datu ekonomiko eta demografikoen behatokia Hiri Kontseiluaren Araudia	Gobernu Plana 2015-2019 Parte-hartze Plan Estrategikoa 2015-2019 Bilboko Barrutietako Kontseiluen Araudia Herritarren partaidetzarako araudiaren berrikuspena	Zuzentasun Instituzionalerako Sistema
DONOSTIAKO UDALA	Donostiakin – Herritarren partaidetzarako lineako plataforma Elkarteen Ataria	Gardentasunaren Ataria	Datu Irekien Ataria Donostia Data	Hitzak, Ekintzak – Gobernu Programaren betetzearen ebaluazioa Aurrekontu publikoen argitalpena	HAZI – Herritarren Arreta Integralerako Proiektua Lagunkoia – Pertsona nagusiekiko lagunkoia den hiria KLIMA – DSS2050 estrategia – klima-aldaketarako toki-estrategia	Gobernu Onaren Kodea
GASTEIZKO UDALA	V-G Herritarren Parte Hartzerako Plana Herritartasunerako eskola irekia	Gardentasun Plan Operatiboa Kontuak ematea gobernu-planari buruz			“Gasteiz Hobetu z” proiektua Herritar-Kontsulten Araudia	

3. FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUA – GIZARTE ZIBILA

1. ZER DA FORO ERREGULAR BAT?

Gobernu-**agenteek** eta gobernuz kanpokoek osatutako foro bat da foro erregularra. Aldizka batzartzen da, Ekintza Planaren diseinua eta ezarpena gainbegiratzeko eta koordinatzeko. Foro erregularra mekanismo garrantzitsu bat da OGPren printzipioa praktikan jartzeko, hau da, gobernuak eta gizarte zibilak elkarrekin sortzeko.

OGP prozesua gainbegiratzeko eratutako foroa da. Erregularitasunez biltzen da (gutxienez, lau hilean behin), aurrez aurre edo ez.

Zergatik sortu FORO ERREGULAR bat?

Foro erregularrak bermatuko du OGP prozesua hainbat **agenteren** partaidetza eta gidaritzaren onuraz baliatzen dela. OGP prozesu bat foro erregular baten bitartez kudeatzeak onura asko ekar ditzake; besteak beste:

- i. Ideia, sare eta iturri berrietarako sarbidea izatea.
- ii. Lankidetzaren harremanak eraikitzea eta elkar ulertzeko bideak ezartzea.

Zer zeregin du foro erregularrak?

Foro erregularreko kideek elkarrekin ezarriko dituzte beren konpromisoak, parte hartzeko modua eta gobernatzeko sistema (adibidez, bileren maiztasuna, nork ezartzen duen agenda, erabakiak nola hartu, auziak nola konpondu, akten zehaztasun-maila eta nork duen

erabakitzeak aginpidea). Horiek guztiak OGPren webgunean argitaratzen dira.

Irismena eta konpromisoa: Foro erregularrak ez du izan behar gobernu-agenteek eta gobernuz kanpokoek parte hartzeko bide bakarra. Foro erregularrak jardueren irismena eta konpromisoa ezartzen ditu, eta horiek agente garrantzitsueni helarazten dizkie (herritarrei, gizarte zibilari, erakundeei, gobernu-sailei, legebiltzarrari, hezkuntza-sistemari, sektore pribatuari, eta abarri), OGP prozesuaren aurrerabideari buruzko informazioa emateko.

Erabakiak hartzea: Foro erregularrak aginpide- eta erantzukizun-maila desberdinak izan ditzake erabakiak hartzerakoan.

Gainbegiratzea eta ikaskuntza: OGP prozesua oso konplexua eta dinamikoa izan daiteke. Hainbat agentek parte har dezakete, eta horren arabera izango da arrakasta, ikuspegi desberdinak nola jorratzen diren kontuan hartuta. Foro erregularrak gidatu eta gainbegiratu behar du prozesua.

Txostenak: Foro erregularrak gainbegiratu behar du Ekintza Planaren txostenen aurrerabidea.

2. NORK PARTE HARTU BEHAR DU FORO ERREGULARREAN?

Foro erregularren osaera elkarrekin erabaki behar dute OGP prozesuan parte hartzen duten agente

guztiekin. Gainera, ordezkaritza orekatua egon behar da gobernu-ordezkariei eta gobernuz kanpokoekin artean.

Foro erregularrak goi-mailako gobernu-ordezkariek izan behar ditu, erabakitzeak ahalmena dutenak, foroa behar hainbat ahaldunduta egon dadin.

Foro erregularreko gobernuz kanpoko kideak prozesu zuzen eta garden baten bidez hautatzen dira. Foro erregularreko arauak aukera eman behar diete gobernuz kanpoko agentei beren hautatze-sistema propioa ezar dezaten.

Foroa sendo ezarrita egon behar da, baina malguta ere izan behar da, gobernuetan eta gizarte zibilean gertatzen diren aldaketetara egokitu ahal izateko. Aldaketak, gertatuz gero, segurtatzeko, foroko kideek hau egin dezakete:

- Foroaren bilera eta jardura guztiak dokumentatu.
- Lehendakariordetza bat eta ordezkariak ezarri, aldaketak gertatzen direnerako.
- Kideen artean txandakatze-politika bat ezarri, beharrezkoa iritzi gero.
- Kide berriei ongi etorria emateko eta sarrera errazteko materiala prestatu.
- Hainbat lotura ezarri, Ekintza Plana ezartzearekin lotutako informazioaren fluxua errazteko.

Akordioak lortu, aldaketa politikoak gertatzen direnean

elkarrizketarekin jarraitzen dela bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadirako Gobernu Irekirako Ekintza Planerako foro erregularra osatzen duten erakunde publikoak zortzi dira: Eusko Jaurlaritza, AFA, BFA, GFA, Bilboko Udala, Donostiako Udala, Gasteizko Udala eta Eudel. Guztiak, Eudel izan ezik, Hautagaitzaren Talde Eragileko parte dira.

Horrenbestez, foro erregularrean parte hartzen duten gizarte zibileko erakunde edo pertsonen ordezkari-

kopurua eta erakunde publikoena berdina izan behar denez, **zortzi pertsona/erakunde dira foro erregularra osatu dezaketenak**, Ekintza Plana garatzean eta hura hedatu eta haren jarraipena egitean **herritarren ikuspegia sartzeko**.

Hautagaitzaren talde eragileko kideetako bat Innobasque izan denez, foro erregularreko kidea izango da (lehen aipatutako zazpi erakunde publikoak bezala). Hori dela eta, **7 plaza erabaki behar dira AUTOAUKERAKETAN oinarrituko den prozesu**

batean. Hala, interesa duten erakunde eta pertsonak erabaki beharko dute formularik egokiena foro erregularraren osaera zehazteko.

3. GIZARTE ZIBILAK FORO ERREGULARRA ERATZE-KO PROZESUA

Gizarte zibilak foro erregularra eratze prozesuak hainbat fase izan ditu. Hona hemen horiek laburbiltzen dituen diagrama:



Hurrengo orrietan aurkeztuko dira prozesuaren zehaztasunak, faseka.

1. FASEA - MARTXAN JARTZEA

Talde sustatzaileak **90 gonbidapenetik gora** igorri zizkien erakunde eta pertsoneri, foro erregularrean parte har zezaten, **aniztasunaren eta lurraldetasunaren irizpideei jarraikiz:**

- **Lurraldetasuna**, Euskal Autonomia Erkidegoan, lurralde historikoetan edo/eta udalerri-mailan lan egiten duten agenteen lankidetza sustatuta.
- **Aniztasuna**, ekintza-planean sar daitezten honako ikuspegi hauek: adina, generoa, migrazioa, hiriaren eta landaren arteko harremana, hiritartasuna (antolatua, ez antolatua, aditua, auzotasuna), eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko harremana.

Horretarako, oinarri hau izan zen abiapuntua, eta, bertan, talde sustatzaileko agente bakoitzak hainbat agente proposatu zituen (**ikus 1. eranskina** – *Talde sustatzaileak proposatutako pertsonen / erakundeen zerrenda*):

[illegible]

Era berean, **Irekia** atarian inprimaki bat bidali eta autohautagaitzak sustatzeko aukera ahalbidetu zen (halaxe egin dute beste partaide batzuek OGPrek tokiko sarean).

Gobernuaren proposamenak

#OGP_Euskadi

Elkarrekin sortzea OGP Local Programme Gobernu Irekiaren Euskal Eredurako Ekintza Plana

KONPARTITU

Open Government Partnership

3 parte hartze

Tagak: Gobernu Irekia - oGov, toki-gobernuak

AURKEZPENA
2018.eko apirilak 27
2018.eko apirilak 30

EZTABAIDA
2018.eko apirilak 30
2018.eko uztailak 31

ONDORIOAK
2018.eko abuztuak 01
2018.eko urriak 01

IRAKURKETA, ERRAZA BERTSIOAN IRAKURTzea

Estatistikak

Aldatu

100 % 3 boto (3/0)

Aldi nago

Kontra nago

Ohiko foroan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu. Foro hori osatzeko, honako prozedura hau jarraituko da:

- Ohiko foroan parte hartzeko gonbidapena bidaliko zaie gizarte zibileko erakunde eta pertsonen, hautagaitzaren Talde Sustatzaileak osatzen duten euskal erakundeek egindako proposamenei jarraituz (apirilako laugarren astea).
- Ohiko foroan parte hartzea onartu duten heritar antolatuta eta ez antolatuta Talde Sustatzailearekin elkartuko dira (maiatzko bigarren astea). Topaketa horretan, egungo testuinguruari buruzko informazioa partekatuko da, eta ohiko foroan heritarren ordezkariak izango diren 8 kideak hautatzeko tailerra egingo da.
- Ohiko foroa eratuko da, eta haren gobernantza-araubidea onartuko da (maiatzko bigarren hamabostaldia).

Ohiko foroa eratutakoan, 2018-2020ko konpromisoak eta ekintza-planari buruzko proposamenak egin eta eztabaidatuko ditu, ekainean, eta, horrez gain, planaren ezarpena ikuskatuko du, 2018ko irailetik 2020ko abuztura bitartean. Gubdienez hiru hilean behin bilera bat (surrez aurrekoa edo urrutikoa) egitea aurreikusten da.

Proiektu hau aukera paregabea da Euskadiko gobernu irekiko bidean aurrera egin dadin. Horrenbestez, Interesgarria

Komunikabideak beheara kargatzeko

AUDIOAK (0) BIDEOAK (0) ARGAZKIAK (3)

PDF (4)

2018_05_17_ogp_09.jpg
3 MB (.jpg)

2018_05_17_ogp_05.jpg
3 MB (.jpg)

2018_05_17_ogp.jpg
3 MB (.jpg)

Behera kargatu argazki bilduma (zip)

2. FASEA - INTERESA ADIERAZTEA

Talde sustatzaileak egindako parte hartzeko gonbidapenak eta Irekia atariaren bidez izena emateko aukera kontuan hartuta, foro erregularra eratzekeo prozesuan, eta, beraz, Euskadirako Gobernu Irekiaren Ekintza Plana garatzeko prozesuan **parte hartzeko 36 interes-adierazpen jaso ziren**.

FORO ERREGULARRA ERATZEKO PROZESUAN PARTE HARTZEKO GONBIDATU DIREN PERTSONA INTERESDUNAK

IZENA ETA ABIZENAK	ERAKUNDEA	IKUSPEGIA	NORK PROPOSATUTA
Aitzol Batiz	KULTIBA	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Alberto Ortiz de Zárate	CONSULTOR	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Ana Molina	ASOCIACIÓN MESTIZA	MIGRAZIOA	TALDE SUSTATZAILEA
Ana Navarri Jaumet	AGADELPRISE	HERRITAR ANTOLATUAK	IREKIA
Anabella Barroso	ALDEE	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Antonio Campos y Eusebio	HELDUAK ADI	ADINEKOAK	TALDE SUSTATZAILEA
Antxon Gallego	IRITZIAK BATUZ	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Arantza Otaolea	CONSEJO DE LA MUJER	GENEROA	TALDE SUSTATZAILEA
Aurora Hermosilla	COORDINADORA ONGD EUSKADI	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Claudia Bohórquez	GAMAKER	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Eneko Agirre	OSOIGO	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Eva Silván	SAVE THE CHILDREN	GAZTEAK	TALDE SUSTATZAILEA
Francisco Jesús Aloa	GAMAKER	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Ivan del Caz	BIKONSULTING	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Javier Goikoetxea	BIKONSULTING	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Joxe Agustín Arrieta	AGIJUPENS	ADINEKOAK	TALDE SUSTATZAILEA

IZENA ETA ABIZENAK	ERAKUNDEA	IKUSPEGIA	NORK PROPOSATUTA
Julio Roca	ZUZENAK	ANIZTASUN FUNTZIONALA	TALDE SUSTATZAILEA
Kristina Apiñaniz	CLUSTER ECONOMÍA CIRCULAR EUSKADI	PUBLIKOA - PRIBATUA	TALDE SUSTATZAILEA
Lucía Sarabia	IRSE INCLUSIÓN SOCIAL	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Maialen Olabe	EGK	GAZTEAK	TALDE SUSTATZAILEA
Maria José Anitua	ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
María José Cano	FEDEAFES	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Mikel Barturen	SAREEN SAREA	HERRITAR ANTOLATUAK	IREKIA
Mikel Cabello	GLOBERNANCE	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Miren Fernández de Landa	CONCEJOS DEL MUNICIPIO DE GASTEIZ	LANDA - HIRIA	TALDE SUSTATZAILEA
Miren Gutierrez	UNIVERSIDAD DE DEUSTO	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Nuria Bustamante		HERRITAR EZ-ANTOLATUAK	IREKIA
Pablo Moratalla	EHLABE	ANIZTASUN FUNTZIONALA	TALDE SUSTATZAILEA
Pablo Rey		HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Ramón Ibeas	CÁRITAS VITORIA	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Ricardo Antón	COLABORABORA	ADITUA	IREKIA
Roberto Gómez de la Iglesia	C2 + I	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Roberto San Salvador	UNIVERSIDAD DE DEUSTO	ADITUA	TALDE SUSTATZAILEA
Susana Sucunza	ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI	HERRITAR ANTOLATUAK	TALDE SUSTATZAILEA
Txema Franco	LANTEGI BATUAK	ANIZTASUN FUNTZIONALA	TALDE SUSTATZAILEA
Txema Odriozola	FEDERPEN	ADINEKOAK	TALDE SUSTATZAILEA

Pertsona horiei fitxa bat betetzeko eskatu zitzaion, eta, bertan, honako galdera hauek erantzun behar zituzten: *Zergatik sartu nahi duzu FORO ERREGULARREAN? Zure ezagutzetan, eskumenetan eta esperientzietan oinarrituta, zein ekarpen egin zenezake? Zein interes daukazu?*

3. FASEA - PROZESUA ZEHAZTEA

Interesdunei bilera batera (2018ko maiatzaren 17an, Lehendakaritza) dei egin zitzaion. Aktan jasotakoaren arabera, hainbat aukera baloratu ziren, eta FORO ERREGULARREAN parte hartuko duten 7 pertsonak / erakundeak zehazteko aukerarik egingarriena honako prozesu hau zela erabaki zen:

- Foro erregularrean parte hartzea zer den zehatzago azaltzen duen deskribapena eta akta interesdunei bidali ondoren, autohautagaitzen prozesua ireki zen, pertsona / erakunde bakoitzak foroan parte hartzeko duen prestutasuna berresteko – *azken eguna, maiatzaren 21a, astelehena; posta elektroniko bidez burutua*

- Informazio horrekin (foro erregularrean parte izateko nahia berresten duten pertsonak / erakundeak) eta kontuan hartuta OGPK eskatzen dituen aniztasun-estandarrak, Innobasquek foro erregularrean osaerari buruzko proposamen tekniko eta arrazoitua egin zuen, lehen fase honetan parte hartu zutenak edo interesa adierazi zutenak (pertsonak/erakundeak) berresteko – *azken eguna maiatzaren 22a, asteartea; posta elektroniko bidez burutua*
- Ekintza Plana egiteko prozesua haste aldea foro erregularra ahalik eta arinen deitu behar zenez, proposamen hori BAIEZKOA edo EZEZKOA emanda berretsi behar zen. Hala, erantzunik ezean, hura positiboa zela ulertuko zen – *azken eguna*

maiatzaren 23a, asteartea; posta elektroniko bidez edo telefonoz burutua

- Partaideei berrespen-prozesuaren emaitza jakinarazi zitzaion. Era berean, partaidetza berretsitakoan, ahalik eta lasterren deitu zen foro erregularra, gizarte zibilak partaidetza ezarri zuenean hura eratzeko – *azken eguna maiatzaren 24a, osteguna*

4. FASEA - PROZESUA GARATZEA

AURKEZTUTAKO AUTOHAUTAGAITZAK

Maiatzaren 22an, Innobasquen jasotako informazioa, prozeduraren arabera, honako hau izan zen:

PERTSONA	ERAKUNDEA	INTERESA	PROPOSATZEN DU
Aitzol Batiz	KULTIBA	BAI	
Alberto Ortiz de Zárate	AHOLKULARIA	BAI	
Ana Molina	MESTIZA ELKARTEA	BAI	
Ana Navarri Jaumet	AGADELPRISE		
Anabella Barroso	ALDEE		
Antonio Campos y Eusebio	HELDUAK ADI	BAI	
Antxon Gallego	IRITZIAK BATUZ	BAI	
Aurora Hermosilla	EUSKADIKO GGKEEen KOORDINAKUNDEA	EZ	Sareen Sarea
Claudia Bohórquez	GAMAKER		
Cristina Apiñaniz	CLUSTER ECONOMÍA CIRCULAR EUSKADI		
Eneko Agirre	OSOIGO	BAI	
Eva Silván	SAVE THE CHILDREN		

PERTSONA	ERAKUNDEA	INTERESA	PROPOSATZEN DU
Francisco Jesús Aloa	GAMAKER		
Ivan del Caz	BIKONSULTING	BAI	
Javier Goikoetxea	BIKONSULTING		
Joxe Agustín Arrieta	AGIJUPENS		
Julio Roca	ZUZENAK		
Lucía Sarabia	IRSE INCLUSIÓN SOCIAL		
Maialen Olabe	EGK	BAI	
María Aranzazu Otaolea	EMAKUMEEN KONTSEILUA	BAI	
Maria José Anitua	ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI	EZ	Konpromiso-taldeetan parte hartzeko gogoa
María José Cano	FEDEAFES	EZ	Sareen Sarea
Mikel Barturen	SAREEN SAREA	BAI	
Mikel Cabello	GLOBERNANCE		
Miren Fernández de Landa	GASTEIZKO KONTZEJU ELKARTEA	BAI	
Miren Gutierrez	DEUSTOKO UNIB.	BAI	
Nuria Bustamante			
Pablo Moratalla	EHLABE	EZ	Sareen Sarea
Pablo Rey			
Ramón Ibeas	CÁRITAS VITORIA		
Ricardo Antón	COLABORABORA		
Roberto Gómez de la Iglesia	C2 + I		
Roberto San Salvador	DEUSTOKO UNIB.	BAI	Lekua uzteko problemarik ez
Susana Sucunza	ASOC. DERECHO COLABORATIVO EUSKADI	EZ	Konpromiso-taldeetan parte hartzeko gogoa
Txema Franco	LANTEGI BATUAK	EZ	Sareen Sarea
Txema Odriozola	FEDERPEN		

Laburpena: 13 interes-adierazpen, 6 negatibo (planaren beste talde / fase batean ekarpen gehiago egin dezaketen erakundeak eta lagapenak barne), eta 17 pertsonak ez zuten lagapenik proposatu beren hautagaitzan, nahiz eta prozesuan parte hartzeko interesa duten oraindik ere.

Ondorioz, autohautagaitzak honako hauek izan ziren (guztira, 13):

PERTSONA	ERAKUNDEA
Aitzol Batiz	KULTIBA
Alberto Ortiz de Zárate	AHOLKULARIA
Ana Molina	MESTIZA ELKARTEA
Antonio Campos	HELDUAK ADI
Antxon Gallego	IRITZIAK BATUZ
Eneko Agirre	OSOIGO
Ivan del Caz	BIKONSULTING
Maialen Olabe	EGK
María Aranzazu Otaolea	EMAKUMEEN KONTSEILUA
Mikel Barturen	SAREEN SAREA
Miren Fernández de Landa	GASTEIZKO KONTZEJU ELKARTEA
Miren Gutierrez	DEUSTOKO UNIB.
Roberto San Salvador	DEUSTOKO UNIB.

PROPOSAMEN TEKNIKOA

Autohautagaitza horiek abiapuntutzat hartuta, eta erabaki zen gisan, proposamen tekniko bat egin zen, gizarte zibilak foro erregularra eratu dezan (7 pertsona / erakunde), **jarraian zehaztuko diren irizpideen arabera.**

- OGPK, bere eskuliburuetan, foro erregularrean honako hauek sartu behar direla jasotzen du:
- Gobernu-planak diseinatzean kontuan hartu ohi ez diren ikuspegiak / sentsibiltateak eskain ditzaketen pertsonak / erakundeak
- Askotariko tamaina eta motatako erakundeak
- Herritarren ikuspegia, adituen ikuspegiarekin osatuta
- Plana diseinatu eta ezartzeko orduan eragina duten aniztasun-irizpideak: generoa, jatorria, adina, hiria-landa...
- Era berean, Innobasque erakundeari beharrezkoa iruditu zitzaion proposamen horretan honako hauek sartzea:
- Hiru lurralde historikoetako erakundeen / pertsonen presentzia
- Parekidetasunaren irizpidea, hau da, emakumeen eta gizonen partaidetza berdina
- Gizarte zibileko ahalik eta kolektibo eta sare gehiene-netara iristeko partaidetzak

Irizpide horiek kontuan hartuta, pertsona interesdunek berretsi beharreko proposamen teknikoa honako 7 pertsona / erakunde hauek eratutakoa izan zen:

PERTSONA	ERAKUNDEA
Alberto Ortiz de Zárate	AHOLKULARIA
Ana Molina	MESTIZA ELKARTEA
Eneko Agirre	OSOIGO
Maialen Olabe	EGK
María Aranzazu Otaolea	EMAKUMEEN KONTSEILUA
Mikel Barturen	SAREEN SAREA
Miren Fernández de Landa	GASTEIZKO KONTZEJU ELKARTEA

Proposamen horrekin foro erregularrean sartu ziren:

- Herritarren ikuspegitik gobernu irekiaren gaineko adituen ikuspegi globala eskaintzen duten pertsonak
- Gizarte zibil antolatuko sare eta koordinatzaileak eta elkarte txikiak
- Adina, genero-ikuspegia, parte hartzeko oztopoak dituzten kolektiboak edo ikuspegi migratzailea bezalako sentikortasunak
- Lurraldetasunaren irizpidea (hiru lurralde historikoe-tako pertsonen /erakundeen presentzia, landakoak eta herrikoak barne) eta parekidetasunaren irizpidea
- Gobernu-planak diseinatzean kontuan hartu ohi ez diren ikuspegiak / sentsibiltateak eskain ditzaketen pertsonak / erakundeak

Txosten osoa hemen argitaratuta dago: <http://www.ogp.euskadi.eus/dokumentuak/-/dokumentazioa/ogp/metodologiak-eta-prozesuak/>

4. FORO ERREGULARRAREN GOBERNANTZA-ARAU BIDE ONARTUTA

OGPren erreferentziako dokumentu batzuetan ezarritakoaren arabera [1] ““foro erregularreko kideek elkarrekin ezartzen dituzte beren eskumen-eremua, kideak izendatzeko prozesua eta gobernantza (bileren maiztasuna, agenda zehazteko arduraduna, erabakiak hartzeko modua, gatazkak ebazteko prozedura, kontuen zehaztasun-maila eta erabakiak hartzeko autoritatea). Hori guztia OGPren webgune edo orri nazionalen argitaratzen da”.

FORO ERREGULARRAREN GOBERNANTZA-ARAU BIDEA

1. IZAERA

Foru erregularra espazio informala eta egituratua da, berariaz diseinatu dena EAEko administrazio publikoek eta herritarrek (antolatuta egon zein ez) ahalik eta parte-

hartze handiena izateko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko.

Hitz egiteko eta elkarrekin sortzeko espazioak bilatu nahi ditu, denen ahotsak entzungo direla bermatuz, Euskadin gobernu irekia sustatuko duen ekintza plan bat diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko.

2. OSAKETA

Foroa modu paritarioan dago osatuta. Batetik, EAEko administrazioak daude eta, bestetik, herritarren (antolatuta egon zein ez) ordezkariak.

Honako hauek dira erakundeen ordezkariak:

1. Eusko Jaurlaritza. Titularra: Luis Petrikorena (Gobernu Irekiko zuzendaria). Ordezkoa: Javier Bikandi (Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria)
2. Arabako Foru Aldundia. Titularra: Nekane Zeberio (Ahaldu Nagusiaren Kabineteko zuzendaria). Ordezkoa: César Rodríguez (Gardentasun eta Partaidetza zuzendari nagusia)
3. Bizkaiko Foru Aldundia. Titularra: Maitane Leizaola (Behatoki zuzendari nagusia). Ordezkoa: Nerea Martiartu (Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako zuzendari nagusia)

4. Gipuzkoako Foru Aldundia. Titularra: Joseba Muxika (Herritarren partaidetza zuzendaria). Ordezkoa: Goizeder Manotas (Modernizazioaren, Zerbitzuen eta Informazioaren Gizarterako Sistemen zuzendaria)

5. Bilboko Udala. Titularra: Gotzone Zaldunbide (Herritarrentzako arreta, Partaidetza eta Barrutiak Arloko zinegotzi eskuordetua). Ordezkoa: Amagoia Ibarondo (Kalitate eta Ebaluazio Kabineteko zuzendaria)

6. Donostiako Udala. Titularra: Edorta Aspiaz (Lehendakari zuzendaria). Ordezkoa: Mikel Esnal (Lehendakari Zuzendaritzari Laguntzeko Unitateko burua)

7. Gasteizko Udala. Titularra: Vale Tena (Alkatetzako aholkularia). Ordezkoa: Blanca Guinea (Alkatetzako zuzendari nagusia)

8. EUDEL. Titularra: Roberto Cañón. (Antolaketako burua).

Herritarren parte-hartzea prozesu ireki baten bidez ezarri da, gonbidapena, alde aurreko informazioa eta auto-hautaketa oinarritzat zituen parte hartu nahi izan duten pertsonen eta herritarren entitateen artean. Prozesuak aniztasun printzipioa du helburutzat, Euskadiko herritarren sentsibiltate eta ikuspegi guztiak jaso nahi ditu eta. Prozesu horren ondorioz, honako pertsona hauek dira

herritarren ordezkariak:

1. Bilboko Emakumeen Kontseilua. Titularra: Maria Aranzazu Otaolea
2. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. Titularra: Maialen Olabe. Ordezkoa: Xuban Zubiria (Parte-hartze teknikaria)
3. Gasteizko udalerriko kontseiluak. Titularra: Miren Fernandez de Landa
4. Hiritarrak. Titularra: Alberto Ortiz de Zárate. Ordezkoa: Antxon Gallego
5. Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia Titularra: Gotzon Bernaola. Ordezkoa: Goizalde Atxutegi
6. Mestiza elkarteak. Titularra: Ana Molina
7. Osoigo. Titularra: Eneko Agirre
8. Sareen Sarea. Titularra: Mikel Barturen

3. ATXIKITZEA ETA EGOITZA

Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Batasunarekin lankidetzan, Foro Erregularra parte hartzeko espazio informal bat da, Euskadiko hautagaitzaren talde sustatzaileak osatzen duena (Eusko Jaurilaritza, 3 foru-aldundiak, 3 hiriburu-udalak eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia).

Ez du egoitzarik, baina Euskal Autonomia Erkidegoko edozein tokitan egin ahal izango ditu bilerak, Foro Erregularra bera osatzen duten erakundeek xede horretarako

eskaintzen dituzten espazioetan.

4. EGINKIZUNAK

Foru Erregularrak honako eginkizun hauek ditu:

- Euskadin gobernu irekia sustatzeko urte biko (2018-2020) plana elkarlanean diseinatzeko laguntzea, hots:
 - Egoeraren diagnostikoa egitea eta hasi behar diren erronkak identifikatzea.
 - Ekintza planean sartu beharreko konpromisoak ezartzean lehentasunak identifikatzea.
 - Urte biko 2018-2020 plana formalizatzea (prozesua, gertaerak, adierazleak...).
- Plana ezartzeko prozesua monitorizatzea, eta ezarritako dauden konpromisoak hobetzeko eta zuzentzeko proposamenak egitea.
- Planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioa egiten laguntzea.
- 2020-2022 aldirako planaren plangintza egiten laguntzea.
- Gomendioak eta proposamenak jasotzea lehenengo planari buruz, ezartzeko eskakizunei buruz eta planeko konpromisoak betetzeko ebaluazioari buruz.
- Beste eragile batzuk erakartzea (foro irekia, konpromisoko taldeak) OGPrek jarduerak gauzatzera (zuzeneko topaketak, kontsulta irekiak, jarraipen eta ebaluazio prozesuak...).

- Egindako jardunaren gaineko informazioa eta kontuak ematea, modu irekian eta elkarlanean.

5. JARDUTEKO BALIOAK ETA PRINTZIOAK

Foru Erregularra osatzen duten kideek jarduteko balio eta printzipio batzuk dituzte, konpromiso moduan bete behar dituztenak. Honako hauek dira:

- Integritatea: zintzotasuna eta ezaxola subjektiboa.
- Gardentasuna eta kontuak ematea.
- Gidaritza eta eredugarritasuna.
- Ondasun komunaren, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren aldeko elkarlana.
- Berrikuntza publikoa.
- Etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza.

6. FOROAREN FUNTZIONAMENDUA

Jarraian, foroak funtzionatzeko moduari buruzko alderdi batzuk azaltzen dira:

Kargu-uzteak. EAEko administrazioaren kideren batek kargua uzten badu, hark ordezkatzeko duen administrazioak ordezkari bat identifikatu behar du. Herritarren ordezkariaren batek kargua uzten badu, ordezkari horren izenean foroan parte hartzen duten kideek proposatu beharko dute ordezkaria.

Presidenteak. Foroak presidente bi izango ditu, bata

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria eta bestea herritarren ordezkarien artean hautatzen den kide bat. Presidente horiek ebatziko dituzte, beren botoen bidez, erabakiak hartzean gerta daitezkeen berdinketak. Presidenteren bat agertzen ez bada edo gaixorik badago, foroak izendatuko du administrazioaren eta herritarren baterako presidentetza errespetatuz bileran jardungo duen pertsona.

Une honetan, hauek daude presidentzian: Luis Petriko-renak (Lehendakariitzako Gobernu Irekiaren zuzendaria) eta María Aranzazu Otaoleak (Bilboko Emakumeen Kontseilua).

Presidenteek, bere ekimenez edo kideek hala eskatuta, pertsona adituek edo beste batzuek noiz edo noiz bileretan parte hartzeko eska dezake, uste badu horien iritzia entzutea interesgarria izan daitekeela aztertzen diren gaietan. Hitz egiteko eskubidea izango dute horiek, baina ez botorik.

Bileren maiztasuna. Foru Erregularrak ohiko bilera egingo du gutxienez hilean behin, 2018-2020 aldirako ekintza plana prestatzeko prozesuan zehar, eta hori hilean behin, plana ezartzen eta ebaluatzen den aldian zehar. Bestalde, aparteko bilera egingo du, bere eginkizunetarako beharrezkoa dela uste duen oro, presidenten ekimenez edo gutxienez kideen herenak eskatuta.

Bileren eraginkortasuna. Benetako lankidetzan ari den foroa izan dadin:

- Bilerak modu bizian eta elkarlanean egituratuko dira.
- Bilerak egin baino lehen, behar besteko aurrerapenarekin, emango da informazioa, ondo aztertzeko eta kanpoko eragileekin egiaztatzeko.
- Komunikazio eraginkorra izateko plataforma bat sortuko da, barruko dokumentuak gordetzeko eta irekian sozializatzeko aukera emango duena.
- Ordezkarri gisa hasten diren kide berriei informazioa emateko materialak prestatuko dira.
- Idazkaritza tekniko bat eratuko da. Honako hauek osatuko dute: talde sustatzaileak OGPrean aurrean izendatzen duen erakundearen teknikari arduradunak eta Innobasque proiektuaren arduradunak -hautagaitza sustatzen duen herritarren kidea-. Bi pertsona horiek bitartekari gisa jardungo dute Foru Erregularreko kideekin, baina horrez gain lan-saioetako idazkariak eta lan teknikoen eta dokumentuen kudeaketaren koordinatzaileak ere izango dira. Gaur egun Koldobike Uriarte (OGP Euskadiko arduradun teknikoa) eta Goizalde Atxutegi (Innobasqueko berrikuntza publikorako proiektu arduraduna).

Deialdia. Presidenteek egingo dute Foroa biltzeko deia, gutxienez bost egun lehenago, foroa premiaz biltzeko arrazoirik ez badago; premiaz biltzeko arrazoirik izanez gero, gutxienez hogeita lau ordu lehenago egin beharko dute biltzeko deia.

Eraketa. Bilerak egite aldera Foroa balio osoz eratze-ko, honako hauek agertu beharko dira bilerara: presidentetako bat eta idazkaria, edo horien ordezkariak, eta, gutxienez, erakundeak eta herritarrek ordezkatzeko dituzten kideen erdia.

Hizkuntz eskubideak. Bileretan parte hartzen duten pertsonak euskara eta gaztelania erabiltzeko aukera izango dute, eta bi hizkuntza horietan egingo dira deialdiak, gai-zerrendak, aktak eta bestelako idazkiak.

Erabakiak hartzea. Oro har, elkarlanean egindako lanaren xedea izango da erabakiak aho batez hartzea. Ezohiko kasuetan, eta gutxienez kideen erdiek eskatzen dutenean, aho batez hartuko dira erabakiak.

Gastuak. Foroko kideek ez dute dirurik jasoko. Hala ere, parte hartzeak eragiten dituen gastuak ordain dakizkieke –egoki bada eta aldeztu aurretik justifikatuta-, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko arauan ezarritakoa betez.

